

DISKURTSOETATIK JOKAERETARA: ANALISIA ETA EKINTZA PLANA

Hiznet graduondokorako egindako sakontze egitasmoa

Maite Etxeberria Arizaga

2004ko uztailaren 30ean

1. AURKIBIDEA

1.- AURKIBIDEA	2
2.- SARRERA	4
3.- OINARRI TEORIKOA	4
3.1.- Hizkuntza ikasteko faktoreak	4
3.2.- Hizkuntzaren funtzioak	8
3.3.- Jarrerak	10
3.4.- Bigarren hizkuntzen jabeak	13
4.- HAINBAT ZERTZELADA MATZ-ERREKARI BURUZ	14
4.1.- Testuingurua	14
4.2.- Ezaugarriak	16
4.3.- Euskara Plana Matz-Errekan	17
5.- DISKURTSOEN AZTERKETA	23
5.1.- Ikerketarako teknika: eztabaida taldea	27
5.1.1.- Eztabaida taldearen ezaugarriak	28
5.1.2.- Gidoia	29
5.1.3.- Analisia eta emaitzak	30
6.- EGINDAKO IKERKETA	33
6.1.- Erabilitako gidoia	33
6.2.- Ondorioak	34

6.2.1.- <i>Indiferentzia diskurtsoa</i>	39
6.2.2.- <i>Euskaltzale diskurtsoa</i>	41
6.2.3.- <i>Eragile diskurtsoa</i>	45
7.- HIZKUNTZA NORMALIZAZIO PROZESUARI EKITEKO ARRAZOTIAK	49
8.- EKINTZA PLANA	54
9.- BIBLIOGRAFIA	70
10.- ERANSKINA	71

2. SARRERA

Lan hau egiteko arrazoia enpresetan euskara planetan ari diren langileen jarrerak hobeto ezagutzea da alde batetik, eta bestetik jarrera horietan sakonduta jokoeretara dagoen jauzi horretan nolabaiteko zubia eraikitzea da. Erabilera planak abian dituzten enpresetan lan handia egin da erabilera eta ezagutza arloetako adierazleak identifikatzen, diagnostiko tresnak prestatzen eta planen inplementazioan eta horien jarraipen eta ebaluaziorako neurtu behar diren adierazleak zehazten. Motibazioaren arloan berriz, ahaleginak ahalegin, erabilera eta ezagutzaren aldean zailtasunak daude adierazleak identifikatzeko, diagnostiko tresnak prestatzeko eta ebaluaziorako neurtu beharrekoak neurtzeko. Hutsune horri nolabaiteko argitasuna eman nahian, gaur egun erabilera plana abian duen enpresa batean langileek dituzten jarrerak hobeto ezagutzeko eurek ekoizten dituzten diskurtsoak aztertu eta horietan eragiteko ekintza plana diseinatuko dut. Ekintza plan horren helburua jarreretan aldaketak eragitea da, baina ez horretan gelditzeko, jokoeretan isla izan dezaten baizik.

Sakontze egitasmo honen xedea beraz, hau da: **euskararen inguruan eraikitzen diren diskurtsoak ezagutzea**, euskara teknikari lanetan ari naizen enpresa -Matz-Erreka- erreferente hartuta. Behin, produzitzen diren diskurtsoak ezagututa eta dauden posizioak identifikatuta, **ekintza plana proposatzea**, antzemandako jarrera eta posizioetan eragiteko.

3. OINARRI TEORIKOA

3.1. HIZKUNTZA IKASTEKO FAKTOREAK

Sanchez Carrión “Txepetxek” (1991) hiru oinarrizko faktore aipatzen ditu hizkuntza bat ikasteko: motibazioa, ezagutza eta erabilera. Autore horrek **motibazioa** “hizkuntza bat ikastera bultzatzen duten arrazoi, desio edo interesak” bezala definitzen du, **ezagutza** “hizkuntza baten funtzionamendua ulertzeko prozesu eta gaitasuna” bezala eta **erabilera** berriz, “komunitateak momentu historiko konkretu batean dituen edozein hizkuntza funtziotan hizkuntza horren erabilera efektiboa bezala”.

Beren jatorria kontuan hartuta hizkuntzarekiko motibazioak bi motatakoak izan daitezke:

- Berezko, barruko edo funtsezkoak
- Kultural, arrazoizko edo kanpokoak

Autore horrek bi ikaskuntza linguistiko aipatzen ditu:


- Ikaskuntza naturala, umeen kasuan gertatzen dena
- Ikaskuntza kulturala, adin batetik aurrera ematen da, nerabe eta helduengan

Bai ikaskuntza **naturalean bai bigarren mailako ikaskuntzan, hiru “ontziak” – erabilera, ezagutza eta motibazioa-** gutxienez, maila bateraino beteta egon behar dira, hau da, **nahikotasun maila** bat lortu behar da hizkuntza bat ikasteko.

Umea hizkuntza erabiltzen hasten da, inguruan entzuten duena jasotzen du eta hizkuntza hori erabiliz hizkuntza ezagutu egiten du eta hizkuntzarekiko berezko motibazioa bereganatzen du. Umeak hizkuntza horretan zuzentasuna lortzeko, bere adinari dagozkion funtzioak betetzeko erabili behar du bestela, ez du lortuko bere buruarekin gustura egotea eta hizkuntza horretan komunikatu nahi duena komunikatzea. Eta erabilera eta ezagutza maila nahikorik ez badu lortzen ez du bereganatuko motibazio natural nahikorik eta hutsune motibazionala izango du hizkuntza horrekiko. Hutsune motibazional hori nola edo hala bete behar denez, beste hizkuntza batek har lezake leku hori eta hasierako hizkuntza ordezkatzeari ekin. Hori ez bakarrik umeengan, nerabe edo helduengan ere gertatzen da.

Ikaskuntza kulturalaren prozesuaren ibilbidea alderantziz egiten da. Abiapuntua, hizkuntza horren aldeko motibazioa da (arrazoi kulturalak, profesionalak, politikoak, familia munduari lotutakoak, erlijiosoak, etab.). Motibazioak nahikotasun maila gainditzen duenean, hizkuntza “ezagutu” egingo du eta maila jakin batetik aurrera, presio motibazionalak jarraitzen badu, erabiltzen hasiko da.

Hurrengo irudian agertzen dira hizkuntzaren hiru faktoreak – motibazioa, ezagutza, erabilera – eta hizkuntza bizi dadin nahikotasun maila gainditu beharra dagoela azpimarratzen da.



Iturria: Xamar (2001) Orekan

Txepetxek (1991) dioenez, **ikaskuntza naturalaren** bidez ikasten den hizkuntza, hau da, ama hizkuntza erabiltzeko **motibazio nahikorik ez** egotea gertatzen da. Horretarako **arrazoiak** hurrengo hauek aipatzen ditu:

- Hitzunak ez badu hizkuntza behar beste erabiltzen ez du bere adin eta heziketa mailari dagokion zuzentasun linguistikorik (bere buruarekin gustura eta erlaxatuta egoteko modukoa hizkuntza horretan hitz egiten duenean) lortuko. Eta ez badu ezagutza maila hori lortzen ez du motibazio natural nahikorik izango hizkuntza horrekiko, frustrazio linguistikoa edo hutsune motibazionala sortuko da berarengan. Hutsune motibazional hori beste hizkuntza batek bete ahal du eta horrela ordezkapen prozesuari hasiera eman.
- Hizkuntzaren funtzio batzuk, hitzunaren ama hizkuntzaz ez badira betetzen, funtzio horiek betetzen dituen kanpoko hizkuntzarako joera eta beharra izango ditu eta bere ama hizkuntza alde batera utziko du.

Ikaskuntza kulturean edo bigarren hizkuntza ikasteko sortzen diren **arazoak** ondorengoak dira Txepetxek arabera:

- Motibazioaren nahikotasun maila lortu ezean ez da lortuko sistema linguistikoaren nuklearizazioa, hau da, ez da lortuko produkzioa ahalbideratzen duten eta ikaskuntzaren estimulua elikatzen duten erresorteen automatizazioa. Horrek erabileran hutsunea sortaraziko du.
- Behin motibazioa nahikotasun mailara helduta ekingo dio pertsona helduak ikasteari baina hizkuntza horretan neurri bateko gaitasuna izan arren, motibazioak ez badu irauten ez du hizkuntza hori erabiliko.
- Hizkuntzarekiko arrazoiak, nahiak eta interesak norabide berekoak ez badira, hau da hizkuntzaren aldekoak, ikaste prozesua ez da arrakastatsua izango.
- Bigarren hizkuntza ikasten denean huts egindako motibazioek hizkuntza horrekiko gizartean dauden aurreiritzien parekoak izan litezke: ez dute hizkuntza horren alde egiten.

Ikaskuntza naturalean motibazioa handitzen lagunduko duten bideen berri ematen du Txepetxek (1991) :

- Hizkuntza horretan nahikotasun maila lortzeko motibazioan nahikotasun maila lortu behar du: hau da, kontzientzia linguistikoa. Autoreak horrela definitzen du

kontzientzia linguistikoa: ezagutzen den eta modu naturalean erabiltzen den hizkuntzaren ikaskuntza kulturala bultzatzen duen motibazio arrazionala eta hizkuntzari berezko balore kulturala ezartzetik sortzen dena. Hizkuntza kontzientziaren eraginez, hiztuna hizkuntza horren ezagutzan sakontzen jarraituko du eta erabilera ere beste esparruetara zabalduko du.

- Hizkuntza baten normalizazio sozialerako oso garrantzitsua da hiztun guztiek euren jatorrizko hizkuntzaren bidez, ikaskuntza kulturalaren gradu eta maila guztietara heltzea, hizkuntza horren aukera guztiez jabetzea. Hori horrela denean, hiztunak funtzio kultural edo erabilera formalenak beteko ditu eta bere buruari eta bere hizkuntzari ospe linguistikoa emango die. Hiztunaren motibazioa orduan, berezkoa eta eragindakoa, barruko eta arrazionala izango da: bere hizkuntzan gustura dago eta berarentzat hizkuntzak duen balorea bere buruari azaltzeko arrazoiak ditu

Ikaskuntza kulturalako edo bigarren **hizkuntza ikasteko motibazioa handitzeko** berriz, honako bide hauek aurkitu ahal dira:

- Ikaskuntza prozesua arrakastatsua izateko, hizkuntzarekiko arrazoiak, nahiak eta interesak norabide berekoak, hizkuntzaren aldekoak izan beharko dira.
- Seme-alaben erabilera sendoak eragina du helduek hizkuntza hori ikasteko duten motibazioan eta alderantziz, helduen motibazioa handitzeak seme-alaben erabilera sendotzen du. Bi mugimenduek elkarri eragiten diote.
- Motibazioak garrantzia hartuko du ikaskuntza eragiteko gai denean. Komunitate linguistiko batean motibazio sakonak eta azalekoak egon litezke eta azalekoak menpeko hizkuntzaren alde egiten duela eman arren, sakonekoak hizkuntza arrotzaren defentsan jokatu. Hori horrela den egiaztatzeko, hiztunen jokaera aztertu besterik ez da egin behar.
- Hizkuntza ahulenaren beharra sortarazten duten proiektu sozialak bultzatu behar dira. Hizkuntza ahulenaren beharrak hizkuntza hori ikasteko motibazioa (barruko motibazioa) eragingo du eta ibilbidea osatzeko behar den hasierako elementua martxan jarriko du.
- Behin bigarren hizkuntzarekiko hasierako motibazioa eta ezagutzari eusteko behar den beste erabiltzen denean esaten da erabileran nahikotasun maila lortu dela. Horrek esan nahi du, ikasi duen bigarren hizkuntzaren erabilera momentuko motibazio eta gaitasunaren neurrikoa izan behar dela, ez apalagoa ez handiagoa. Hizkuntzarekiko motibazioa mugatua baldin bada, erabilera ere mugatu egin behar da eta hiztuna berak duen gaitasunarekin gustura egon behar da eta hori ere

mugatua izan beharko da. Baina motibazioa oso zabala baldin bada, hiztunak ahal duen eta gehien zabaldu behar du hizkuntza horren erabilera eta naturaltasunez funtzio guztietan gai izateko behar dituen erregistroak bereganatu.

- Bigarren hizkuntzarekiko motibazio eta ezagutzari eusteko erabilera nahikoa zein den azaltzen du Txepetxek: Inguru hurbilean (familia, lagunartea) zenbat eta txikiagoa izan erabilera, gero eta handiagoa izan behar du hizkuntzaren erabilera gainontzeko esparruetan eta alderantziz, gizarteak ez badio helduari bermatzen erabilera nahikoa hizkuntza nazionalean, familia eta lagunartean ahal den eta gehien erabilita lortuko du bere helburua.
- Ama hizkuntza eta bigarren hizkuntzaren artean oreka lortzen denean erabileraren nahikotasun maila lortu dela esaten da eta horrekin batera berezko ezagutza. Eta hortik aurrera prozesu naturalari hasiera ematen zaio: erabilera formaletatik hizkuntza gune intimoetan ere sartzen da, gune naturalenetan eta berezko erabileran: pentsamendu hizkuntza egiten da. Hizkuntza bien arteko oreka une batekoa besterik ez da, horrela, parekotasun une baten ondoren, bigarren hizkuntza zena lehenengo hizkuntza izatera iristen da.

3.2. HIZKUNTZAREN FUNTZIOAK

Txepetxen (1991) arabera hizkuntza batek 7 funtzio bete ahal ditu:

- Pertsonaren identitatea, barne pentsamendua
- Familiaren hizkera
- Lan arloko hizkera
- Herriko hizkera
- Nazio mailakoa
- Kultur mailakoa
- Nazioartekoa



Iturria: Xamar (2001) Orekan

Hizkuntzaren maila guzti horiek, pertsonarengandik hasi eta nazioartekoan bukatzeko, eskala baten moduan irudikatu ahal dira eta bakoitzak azpian dituen funtzioak biltzen ditu.

Lehenengo bi mailak, identitate funtzioa eta familia hizkeraren funtzioa eskurapen naturalaren menpe daude. Goialdean agertzen diren bi funtzioak, berriz, kultur hizkuntza eta nazioartekoa, ikaskuntza kulturalaren menpe daude.

Normalizatuta dagoen hizkuntzak lehenengo bost mailak betetzen ditu: pertsonaren barne pentsamendua, familiarena, lan arlokoa, herrikoa eta naziokoa. Horrek esan nahi du bizitzako alor guztiak, irakaskuntza, administrazioa, lan mundua, zerbitzuak, justizia sistema, komunikabideak, kultura...) mintzaira horren bidez egiten direla.

Aldiz, bostak ez baditu betetzen, baztertu arazia dagoelako seinale da. Kasu horretan beste hizkuntza batek maila horietariko bat (edo gehiago) betetzen du, funtzio horiek inoiz ez daudelako hutsik gaur egun.

Hizkuntza baten estatus soziala eskala horren barruan hizkuntza horrek betetzen dituen funtzioen araberakoa izango da, zenbat eta gorago egon (zenbat eta funtzio gehiago bete) gero eta estatus sozial handiagoa izango du.

Hizkuntza guztiak euren arteko borrokan ari dira etengabe. Ikuspegi soziolinguistikoari begira, hizkuntzen arteko alde bakarra da eskalaren zein lekutatik ekin borroka horri. Gaztelania eta euskara edo gaztelania eta katalanaren arteko borroka 4. eta 5. maila artean kokatzen da.

Euskarak eta katalanak hizkuntza nazional moduan ezarri behar dira euren lurraldeetan bestela, euren jomuga herriko hizkera da eta horrela kultur hizkuntzen bidea ixten zaie eta berehala, borroka 3. eta 4. maila artean kokatuko da.

Hizkuntzen funtzioen artean mugimendu eta trantsizioak ugariak izaten dira, hizkuntzaren funtzioak betetzea prozesu oso dinamikoa da.

Beraz, **hizkuntzaren normalizazioa lortzeko** alde batetik, **euskarak faltan dituen espazioak edo funtzioak berreskuratu** behar dira eta, bestetik, **hiztunak motibatu** behar dira espazio berri horietan euskaraz egin dezaten.

3.3. JARRERAK

Jarrerren inguruan emandako definizioak asko dira. Hurrengo ezaugarri hauek ditu laburbilduta:

- Jarrerak objektu sozial baten ebaluaketa inplikatzeko du
- Jarrera zuzenean beha ez daitekeen konstruktua edo aldagaia da
- Ikasia da
- Paper motibatzailea du, inpultsozkoa eta akzioaren orientazioa da nahiz eta ez den berarekin nahastu behar (ezta ohitura edo erreflexuekin); hautematea eta pentsamendua ere eragiten ditu
- Antolakuntza inplikatzeko du (aspektu kognitibo, afektibo eta konatiboen arteko erlazioa edo epe luzerako oroimenean eskema afektiboa)
- Iraun egiten du denboran (nolabaiteko egonkortasuna dago)

Jarrerak behar psikologikoak betetzen dituztela esan izan da (Katz, 1960; Lippa, 1994; Oskamp, 1991; Pratkanis eta Greenwald, 1989; Shavitt, 1989; Stahlberg eta Frey, 1990; HIZNET graduondotik 2003-2004). Bost funtzio identifikatu dira:

- Ezagutza: jarrerren bitartez pertsonen mundua modu koherentean ordenatu eta kategorizatzen dute.
- Instrumental edo erabilgarria: jarrerak sariak maximizatzea eta zigorrak minimizatzea baimentzen dut, horrela behar hedonikoa asetzen da.
- Ego-babeslea: jarrerak pertsonak bere buruarekiko sentitzen dituen emozio negatiboak aurre egitea baimentzen du, zenbait ezaugarri kanpora aterata edo ezezkota emanda.

- Balore adierazpena: jarrerak identitate edo auto-kontzepturako garrantzitsuak diren baloreak azaltzea baimentzen dute; horrela norberaren zentzua baieztatzen da edo argitze beharra asetzen da.
- Egokitzapen edo egokitze soziala: jarrerak zenbait taldetan integratu eta onarpen soziala jasotzea baimentzen dute.

Jarreraren eta portaeren arteko erlazioa azaltzeko, Leon Festingerek (1957; HIZNET graduondotik 2003-2004) **Disonantzia Kognitiboaren Teoria** garatu zuen: gizaki guztiek pentsatzen eta egiten dutenaren arteko kongruentzia izateko nolabaiteko joera dute; jarreraren eta jokabidearen artekoa, alegia. Pentsatzen eta egiten denaren arteko inkongruentzia gertatzen denean, disonantzia egoera ematen da. Disonantzia egoera horrek tentsioa sortzen du, eta subjektua oreka berrezartzera bultzatzen. Orokorrean, oreka hori bereganatzeko bidea aurretiko jarrerak aldatuz ematen da (Festinger, 1957; HIZNET graduondotik 2003-2004), nahiz eta beste aukera batzuk ere zilegi diren. Bi sinismen edo funtsik gabeko aukerak sortutako disonantzia murrizteko hiru estrategia erabiltzen dira:

- Elementuetako bat aldatzea, sinesmenetako bat trinkoagoa izan dadin.
- Kognizio berriak sortu elementuetako baten garrantzia areagotu eta bestearen pisu disonante erlatiboa gutxitzeko.
- Elementuen garrantzia aldatu beraien artean hain kontrakoak ez izateko.

Jarrera ez da kontzeptu finko eta estatikoa, **dinamikoa** baizik. Jarrera aldaketaren gaiaren inguruan eraginkortasun soziala erabili izan da. Morales, Reboloso eta Moyak, (1994; HIZNET graduondotik 2003-2004) horrela definitu zuten eraginkortasun soziala: pertsona, talde edo instituzio batek (estimulu jakin bat kontuan hartuta) beste pertsona edo talde batekiko jokatzeko, sentitzeko edo pentsatzeko modua aldatzeko intentziorik egiten duen akzioa da. Adibidez, egunero lagun, familiarterako, komunikabide, agintari eta beste instituzio batzuegandik mezu, gomendio, eskari etab. ugari jasotzen ditugu, gure jokabide, sinismen eta jarreretan eragiteko.

Hizkuntza ikasi eta erabiltzerakoan, jarrera eta motibazioa prozesuen arteko loturak aurkitu dira. Nahiz eta motibazioa aztertzeke ikuspegiak ugariak izan, motibazioari buruzko definizio gehienak bat datoz: hainbat gauza egitearen ala ez egitearen kausak, edo egiten diren gauza horiek modu batera ala bestera egiteagatik interesatzen den prozesu multzoa inplikatzeko duela motibazioak. Motibaziorik gabe ez dago mugimendurik, ezta aktibitate psikikorik ere, eta ez da posible portaera gertatzea.

Motibazioa askotan portaeraren deskribapen hutsak eginez erabiltzen da, nahiz eta jakin horren atzean kausazko faktoreak daudela. Baina, deskribapenak inoiz ezin ditu azalpenak ordezkatu, oso zehatza bada ere. Portaerek aktibitate psikikoaren oinarrian dagoen egitura prozesualaren aztarnak besterik ez dizkigute ematen, fidagarriak izan ala ez. Baina portaerek ez dute portaera arrazioen azalpen zentzudunik ematen.

Motibazioa ez da portaeraren jatorri bakarra, badaude beste faktore fisiko eta fisiologikoak, norbanakoarenak eta egoeraren arabekoak prozesuaren nolakotasunean eta ondorioetan ere eragiten dutenak. Ezin da portaera jakin bat motibazio terminoetan bakarrik azaldu.

Hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko motibazioak jarrerazko oinarri sendoa du. Hizkuntza ikasteko eta erabiltzerakoan bi faktore aurkitu dituzte: bata, izaera kognoszitiboa duena eta bestea, izaera motibazionala duena. Bigarren horrekin lotzen da jarrera eta portaeraren arteko harremana.

Gardner eta Smythek (1975b; Arratibeletik, 1999) motibazioaren inguruko zehaztasunak egin zituzten beraien bigarren hizkuntza baten jabekuntza eremuan. Autore horien arabera, ingurune kultural batean pertsona batek bigarren hizkuntza hori ikastea espero badu (testuinguru formala) pisu gehiago izango dute errendimenduan gaitasun kognitiboek. Testuinguru informaletan (beste komunitateko elkarrizketa zuzena, telebista ikustea, irratia entzutea...) berriz, izaera motibazionalarekin lotura handiagoa egotea espero da.

Tradizio nagusian bi izan dira orientazio motibazional nagusienak: integratzailea (beste taldearekin interakzionatzeko) eta instrumentala (errekonozimendu soziala irabazteko edo abantaila ekonomikoak lortzeko). Horiek berrinterpretatu egin dira eta horien ordeztuak (barneko nahia) eta estrinsekoak (kanpoko beharra) proposatu dira (Richards, 1993; HIZNET graduondotik 2003-2004). Tradizio nagusian talde arteko maila garrantzitsua bazen, orain gizabanako mailara enfasia pasatzeko joera nabari da.

Fishbein eta Ajzen (1975; HIZNET graduondotik 2003-2004) saiatu dira jarreraren eta portaeraren arteko erlazioa zein den adierazten. Ekintza Arrazoituaren teorian azaltzen dutenez, **intentzioa portaeraren aurreale ona da** eta jarrerek eta arau sozial subjektiboek portaerarekiko pertsonaren intentzioa baldintzatzen dute. Beraz, subjektuak duen jarrera eta arau subjektiboa ezagututa, haren portaera-intentzioa mugatu ahal da eta horren bidez, haren portaera aurrean ahal da.

Kausa-egozpenean oinarritzen diren **ikuspegiak** (Heider,1958; Kelley, 1967, Weiner, 1974, 1980; HIZNET graduondotik 2003-2004) gertakari bati jarraitzen dion gogoeta mentalak duen indar motibazionala ezagutzeaz arduratzen dira. Portaera azaltzeko kausak

aurkitzeko joera dugu, eta bereziki lortutako emaitzak gure aurre igurikapenekin (akzio konkretu batek helburu baten lorpenean izango duen hautemandako probabilitate aurreratua) bat ez datozenean (Weiner, 1982; HIZNET graduondotik 2003-2004). **Emaitzen kausa-egozpenek etorkizuneko** igurikapen eta helburuen hautuan **eragingo dute** eta baita, garapen emozionalean eta **akzioarekiko joera** berrietan ere.

3.4. BIGARREN HIZKUNTZEN JABEKUNTZA

Bigarren hizkuntzaren jabeakuntza prozesuaren portaeran aldagai batzuk hartzen dira kontuan:

- Sozioestrukturalak: makroak (gizarte eta talde mailan) eta mikroak (pertsona mailan)
- Psikosozialak: jarrerak, motibazioak, identitatea, bizitasun etnolinguistiko subjektiboa, etab.
- Aldagai sozioestruktural eta psikosozialen arteko lotura egiten dutenak pertsonaren sozializazioaren arabera: sare soziala, komunikazioa edo testuingurua.
- Psikologikoak: nortasunaren ezaugarriak, konfiantza linguistikoa, etab.
- Irakaskuntza-ikaskuntza formalaren bitartez ematen denean: irakaskuntza mota eta klima, irakaslea eta material gaiekin lotzen direnak.

Motibazioa eta jarrera prozesuen arteko harremana estua da eta baita, bigarren hizkuntzaren jabeakuntza eta erabileraren artekoa ere.

Gardner-ren (1985; HIZNET graduondotik 2003-2004) arabera **ikasteko motibazioak hiru osagai** ditu, hiru elementuren konbinaketa da: ikasteko **nahia** edo desioa, helburu hori lortzeko egiten den **esfortzua** eta helburu hori lortzeko aldeko **jarrerak**. Beraz, zenbat eta handiagoa izan elementuren bat, esate baterako jarrerak zenbat eta aldekoagoak izan, gero eta aukera gehiago dago hizkuntza hori ikasteko.

Gure testuinguruan euskara 2H bezala ikasteko motibazioaren inguruan lan batzuk egin dira. Horien artean, **Nekane Arratibelek** (1999) bere doktorego tesian EAE eta Nafarroako hainbat euskaltegitan euskara bigarren hizkuntza modura ikasten duten 566 subjektu helduz osatutako laginetik ateratako **emaitza orokorrak** hauek dira:



Motibazioari dagokionez Gardnerren **orientazio integratzailea** aurkitu da, - ikaslea beste komunitateko kulturaz gehiago jakin nahi du, horretan modu zabal batean interesatuta dagoelako, hau da, beste taldearekin interrelazionatzeko nahia duelako - bigarren hizkuntza ukipenezkoetan motibazio komunikatzailea orientazio motibazional

integratzailean kokatzen da. Orientazio instrumentala orientazio motibazional berezia da gure testuinguruan eta bitan banatzen da: lan-munduarekin soilik lotzen den irabazia, instrumental laborala eta bestelako irabaziak, hautazkoagoak direnak pertsonarentzat, instrumental pragmatikoak deitzen direnak

4. HAINBAT ZERTZELADA MATZ-ERREKARI BURUZ

4.1. TESTUINGURUA


Matz-Erreka Kooperatiba Elkarteak Gipuzkoako Debagoiena eskualdean dago **Antzuola** herrian. Inguruneari begiratuz gero, Matz-Erreka oso herri eta eskualde euskaldunetan kokatuta dagoela ikusi ahal da. Hona hemen, Antzuola eta Debagoieneko ezagutza eta erabilerari buruzko datuak, ezagutzaren ingurukoak 2001eko biztanleriaren zentsu eta erroldatik jasotakoak eta erabilerarenak berriz, Euskararen kale erabileraren neurketatik eta jasotakoak:



Goiko grafikoetan ikusten da Matz-Erreka kokatuta dagoen eskualdearen – Deba Goiena - euskararen ezagutzari buruzko datuak: %65,6 euskalduna da, %15 ia euskalduna eta

%19,4 erdalduna. Euskararen erabilerari buruzko datuetan %43,7 euskara eta %56,3 erdara erabiltzen duela agertzen da.

Antzuolan 2001ean ez zen egin Euskararen kale erabileraren neurketarik eta ez dugu horren inguruko daturik, bai ostera, ezagutzaren ingurukoak.




Antzuolan, %76,7 euskalduna da, %7,8 ia-euskalduna eta %15,5 erdalduna. Eskualdearekin alderatuta, Antzuolan euskaraz dakitenak Deba Goienan baino gehiago dira, 11 puntu gehiago ditu Antzuolak. Erdaldunen kopuruan dagoen aldea txikiagoa da, Antzuolan %15,5 eta Deba Goienan %19,4 da erdalduna. Eskualdeko ia-euskaldunen portzentajea berriz, Antzuolakoaren bikoitza da, %7,8 Antzuolan eta %15 Deba Goienan.

Antzuolako euskararen erabilerari buruzko daturik ez badugu ere, eskualdeko datuek egoerari hurbiltzeko informazioa eskaintzen digute.

“Euskararen kale erabilera, Deba Goiena, 2001 (%)” grafikoan ikusten den moduan, Deba Goieneko euskararen erabilera %43,7 da eta gaztelaniarena berriz, %56,3. Eskualdeko erdiak baino gehiagok gaztelania erabiltzen du nahiz eta %65,6 euskalduna izan. 20 puntuko aldea dago ezagutza eta erabileraren artean Deba Goienan.

Datuak herrialdearekin – Gipuzkoa – eta Euskal Herriarekin erkatuz gero, Antzuola oso herri euskalduna dela ikus daiteke.



Euskal Herriko biztanleriaren ia %30 euskalduna da eta Gipuzkoan berriz, kopuru horrek gora egiten du, erdia baino gehiago da euskalduna eta. Deba Goieneko euskaldunak %65,6 dira eta kopuru horrek gora egiten du Antzuolan, biztanleen ia %80 euskalduna baita.

Antzuolan dauden hiru enpresa handienak – Matz-Erreka, Elay, Goizper – martxan dituzte Euskara planak. Azpimarragarria da beraz, 2000 biztanle inguruko herri baten, Antzuolan, 871 lagun enpresetako Euskara planen baten sartuta egotea, nahiz eta langile asko antzuolatarra ez izan.

4.2. EZAUGARRIAK

Matz-Erreka 1961ean sortu zen, beraz, 40 urtetik gorako ibilbide luzea egin duen Kooperatiba da.

Gaur egun, Matz-Errekak hainbat delegazio ditu Espainian (Bartzelona, Sevilla, Kanariar Irlak ...) eta beste planta bat Mexikon. Antzuolako plantan 210 langile daude eta horietatik %59 euskal hiztuna da.

Matz-Erreka 4 negoziotan banatuta dago eta bakoitzak autonomia handia du bere burua gestionatzeko: Automatismoak, Plastikogintza, Finkapen Elementuak eta Ate Automatikoak. Lau negozio horietan prezisio handiko plastikoak automobil eta etxetresna elektrikoetarako, torlojuak, atetarako automatismoak eta ate automatikoak egiten dira.

1970etik Mondragon Corporación Corporativaren (MCC) barruan dago eta MCC-ren barruan Osagaien Dibisioan dago.

4.3. EUSKARA PLANA MATZ-ERREKAN

Matz-Errekako Euskara Batzordeak bultzatutako eta Batzar Orokorrak onartutako euskara plana **1999ko apirilean hasi zen** Emun Koop Elkarteak egindako aurreazterketa eta diseinuarekin eta urte horretako irailetik aurrera martxan jarri zen. Beraz, Euskara planaren bosgarren urtea da 2004ko urte hau.

Matz-Errekako Euskara Planak **bi fase** ditu, bata, **1999-2002** urtera bitartekoa eta bestea, 2003-2005 urtera bitartekoa eta oraindik bukatu gabea dena.

Lehenengo fasean jarritako helburuak 3 multzotan sailkatzen dira: erabilera, ezagutza eta motibazioa. Erabilera arloan helburu hauek jarri ziren: ahozko erabilera, irudia, idatzia eta aplikazio informatikoak. Ezagutzan helburuak euskal hiztun kopurua igotzea izanda, kontratazio eta euskara eskoletara mugatu zen eta motibazioan berriz, komunikazioan eta jarreran eta sentsibilizazioan eragiteko helburuak markatu ziren.

1999-2002 eperako jarritako helburuen betetze maila jasotzeko, 2002ko uztailean balorazio kualitatibo eta kuantitatiboa egin zen, enpresako gune desberdinetan. Lehenengoa egiteko Euskara Batzorde, erabilera talde eta enpresako langile guztien iritzia eta proposamenak jaso ziren eta kuantitatiborako berriz, irudian, ahozkoan, idatzian eta aplikazio informatikoetan euskararen erabilera neurtzen duen tresna erabili zen.

Euskararen **erabileraren** inguruan egindako balorazio kualitatiboa da ondorengoa:

ARLOA	ALDAKETA GARRANTZITSUENA K	BETETZE MAILA
AHOZKO ERABILERA	Biren arteko harremanetan ohitura aldaketak eman dira. Kontzientziazte lan garrantzitsua.	TXIKIA
IRUDIA	Euskaraz oso gutxi egotetik errotulu eta identifikazio gehienak ele bietara	ONA
IDATZIA	Idatzi orokorrak ele bietara	NAHIKOA

APLIKAZIO INFORMATIKOAK	Euskara sartzeko aukera aztertu. Intranet menuak ele bietara Programa txikiren bat euskaraz	NAHIKOA
----------------------------	--	---------

Balorazio kuantitatiboa egiteko erabileraren neurketatik jasotako emaitzak hurrengo taula honetan azaltzen dira:

ARLOA	% EUSKARAZ
Kanpo harremanak	
Irudia	%15
Idatzia	%3
Barne harremanak	
Irudia	%34
Ahozko erabilera	%12
Idatzia	%17
Aplikazio informatikoak	%10

Ezagutzaren arloan, euskal hiztunen kopurua igotzeko jorratutako bide bat ez zekitenak euskara eskoletan ikastea izan zen. Taula honetan 1998-2002 urtera arte euskara eskoletako ikasleen ibilbidea ikus daiteke:

Urtea	Ikasle kopurua
1998	15 langile
1999	50 langile hasi egindako kanpainaren ondoren bukatu 20k
2000-2003	Hasieratik hasitako 15 langilek jarraitzen dute

2001-2002	5 lagun Alfabetatze ikastaroan
-----------	--------------------------------

Ondorengoak, berriz, Matz-Errekako euskal hiztunen portzentajearen inguruko datuak dira eta 3 urtetan izandako bilakaera:

	1999	2002
Euskal hiztunen portzentajea	%47	%53

Enpresan langile berriak sartu ahala, euskal hiztunen kopuruak gora egin zuen. Horrela, 1999an euskal hiztunen portzentajea %47 bazen, 2002an 6 puntutan gora egin zuen euskal hiztunak %53 izatera heldu arte.

Langileen jarrerari dagokionez, 99an egin zen inkestan planaren aldeko jarrera adierazten zuen langile kopurua, %97koa zen eta 2002ko uztailean banaka jasotako inkestetan eta Erabilera Talde eta Euskara Batzordean egindako balorazioetan, besteak beste iritzi hauek jaso ziren:

- Batzuentzat Euskara Planaren erritmoa nahiko mantsoa izan da.
- Beste batzuk ari direlako ez ote gabilta Matz-Errekan ere.
- Aldaketa izugarriak eman dira, kontzientziazio gehiago.
- Euskara eguneroko lanean erabil daitekeela ikusi da, hala ere, gauzak bikoiztea dakar momentuz.

Orokorrean , jarrera aldekoa , euskarari garrantzia ematen zitzaiola eta erdal hiztunengana hurbiltzea lortu zela esan daiteke.

2003an Euskara Planean aldaketa nabariak egin ziren eta horrela, planaren **bigarren faseari hasiera** eman zitzaion. Hurrengo hauek dira aldaketa azpimagarrienak:

- 2003an lehenengo aldiz, Euskara Plana enpresako Gestio Planean sartu zen, enpresako gainontzeko proiektuekin batera. Horrek berebiziko garrantzia du, enpresako sisteman txertatzeak planaren normalizazioa dakarrelako berarekin.
- Euskara Batzordearen instituzionalizazioa. 2003an Euskara Batzordearen osaketa, maiztasuna eta funtzioak ezarri ziren. Ordura arte Euskara Batzordea boluntarioek osatzen bazuten, urte horretatik aurrera 9 lagunek osatzen dute, 4 Negozioetako ordezkariak dira, 3 enpresako organoetako ordezkariak – Zuzendaritza Batzordea,

Kontseilu Errektorea eta Kontseilu Sozial – koordinatzailea eta euskara teknikaria. Bilerak hilean behin egiten dira eta Batzordearen funtzio nagusia Euskara Planaren kudeaketa egitea da.

- 2 ildo nagusi markatu ziren: ildo ofiziala eta ildo boluntarioa. Ordura arte, Euskara planean jarritako helburuak bide boluntariorik betetzen ziren eta 2003tik aurrera, bi ildo bereiztu ziren: ofizialean jarritako helburuak derrigorrez bete behar dira gainontzeko proiektuetan bezala eta boluntarioan helburu pertsonalak jarrita daude eta boluntarioek osatzen dute. Esan beharra dago bai ildo ofizialean, bai ildo boluntarioan, erdal hiztunek ere parte hartzen dutela.
- Euskararen ezagutzaren arloa Pertsonal Sailak bideratzea. Euskara eskolak enpresako formazio planean txertatu dira eta gainontzeko ikastaroak bezala, formazio planetik bideratzen dira.

Aldaketa horren berri enpresa osoan eman zen. Hurrengo irudiak dira, ohar tauletan jarri zen informazioa eta adibide moduan ikus daitekeena:

ZER LORTU NAHI DUGU?

- **Azken 3 urteetan egindako lanari jarraipena ematea**
- **Matz-Erreka ele bidun izateko baldintzak garatzea**
- **2003ko Gestio Planean sartu ondoren, horrek jarraipena izatea**
- **Matz-Errekako kolektibo osoak planaren inguruan informazioa izatea**

Erabileran jarritako helburuak 4 arlotan banatuta daude: ahozkoa, irudia, idatzia eta aplikazio informatikoak. Urteroko ekintza planean helburuak, arduradunak eta epeak ezarri ondoren, helburuen jarraipena eta balorazioa egiten da.

Ikusi 2003ko erabileraren inguruko helburuei buruzko informazioa emateko erabili zen irudia:

ZER EGINGO DUGU? Erabileran eragin

Ildo ofiziala (Printzipioz derrigorrez aurrera ateratzekoak). Adibideak:
Ahozkoan “Batzar Orokorrean euskaraz egin”. **Irudian** “Ohar tauletako idatzi finkoak ele bietara jartzen jarraitu”.
Idatzian “Organo nahiz bilera ofizialetako deialdiak ele bietara jarri”.
Aplikazio informatikoak “Factory Win aztertu”

Ildo boluntarioa (Boluntarioki hainbat lan aurrera atera). Adibideak:
Ahozkoan “Inguruko euskal hiztunekin euskaraz egin”.
Irudian “Bakoitzaren karpetak euskaraz jarri”.
Idatzian “Oharrak euskaraz jarri”

Ezagutza Pertsonal sailak kudeatzen du eta formazio planetan dago txertatuta. Urteko beharrak detektatu ondoren, plana diseinatzen da eta euskara eskoletan ikasteko laguntzak ematen dira. Matz-Errekan Euskara Plana hasi zenetik euskararen inguruko ezagutzan emandako bilakaera ikus daiteke hurrengo grafikoan:

	1999	2002	2004
Euskal hiztunen portzentajea	%47	%53	%59


Euskal hiztunen portzentajeak gora egin du azken urteetan, 1999an %47 baziren euskal hiztunak 2002an %53 ziren eta gaur egun, 2004an euskal hiztunen portzentajea %59 da.

Motibazioan berriz, 2004ko Gogobetetze inkestan Euskara Planari buruzko galderak txertatu dira eta oraindik ondorioak atera gabe badaude ere, bertako emaitza batzuk dira ondorengo grafikoetan azaltzen direnak.



Goiko grafikoan ikusten denez, "Euskara gehiago erabiltzeko edo ikasteko gogorik baduzu?" galderari baietz erantzun diona %89 izan da eta ezetz erantzun diona, ostera, %11.

Nahiz eta jakin jarrera ez dela portaeraren jatorri bakarra, intentzioa portaera aurreikusteko elementu garrantzitsua denez, grafikoan azaltzen diren datuak ikusita, hau da, langileen %89 dela euskararen aldeko jarrera duena, datu baikorrak direla esan dezakegu.



“Euskarako lana, eginbeharrak egiten dituzu?” galderari berriz, baiezkoa eman diona %26 izan da, %27 da eginbeharrak batzuetan bai eta besteetan ez dituen egiten eta %47 da euskarako lanak egiten ez dituen.

Aurreko grafikoaren emaitzekin konparatuz gero, euskararekiko aldeko jarrera kolektiboaren gehiengoak duela ikus daiteke %89k euskara gehiago ikasteko edo erabiltzeko gogoia baitu, baina gero portaeraren berri ematen duen galderari emandako erantzunetan jauzi handia dagoela nabaria da, kolektiboaren %26k beti edo askotan egiten ditu euskarako lanak eta %27k batzuetan egiten ditu.

Argi dago beraz, jarreretatik portaeretara jauzi handia dagoela eta tartean gertatzen prozesuak ugariak direla, badaudela motibazioaz gain beste faktore batzuk norbanakoaren eta egoeraren arabekoak eta horiek portaeran eragina dutela. Zubia eraikitzea izango da egokiena, jarreretatik portaeretara doan zubia, euskararekiko aldeko jarrerak portaeretan isla handiagoa izan dezaten, euskararekiko aldeko jarrera dutenek bideak aurkitu ditzaten euskara erabiltzeko eta jarrera eta jokaeren arteko aldea txikiagoa egiteko.

5. DISKURTSOEN AZTERKETA

Pertsonen ekintzak barne dimentsio baten adierazpenak dira. Jendearen portaeren azterketan funtsezkoa da barne dimentsio hori jasotzea – baloreak, ideiak, pentsamenduak edo sinismenak barneratzeko eta sortzeko gaitasun sinbolikoa -; izan ere, portaera sozialen barne dimentsio sinboliko horrekin guk zentzua ematen diegu geure ekintzei. Beraz, **jokaera sozial batek duen sakoneko esanahia eta zentzua ulertu** nahi badugu, aktoreek hizkuntzaren bidez adierazten duten signifkazio-sistema sinbolikoari erreparatu beharko diogu.

Hizkuntzaren bidez eta sormen sinbolikoaren bidez egiten dugun errealitatearen irakurketa eta ekoizpena aztertzeko, aktore sozialen diskurtsoak aztertu behar dira. Diskurtsoen azterketan, hizkuntzaren ahalmen deskriptiboa ez ezik –hizkuntzaren funtzio denotatiboa: errealitate objektiboaren deskribapena egiteko erabiltzen duguna-, ahalmen konnotatiboa eta sortzailea ere kontuan hartu behar da – hizkuntzak erreferente sinbolikoak sortzeko daukan ahalmena, errealitatea ikusteko eta bizitzeko moduak egituratzen dituzten erreferenteak-.

Hizkuntzan beti dago tentsio moduko bat errealitate faktikoaren izendapenarekin eta errealitate horren errepresentazioaren artean, kodearen eta sinboloaren artean. Izan ere,

hizkuntza bakoitzak ditu izendapen hotz eta zehatzak egiteko bitartekoak eta baita baloratzeko, zeharka adierazteko, konparatzeko eta gogora ekartzeko bitartekoak ere.

Alfonso Ortí-ren (Alfonso Ortí, 1996)¹ arabera errealitate sozialaren baitan ikertzaileak, beste edozein subjektuk bezala, ez ditu soilik gertaerak antzematen (jendearen ekintzak eta gertakizunak) diskurtsoak ere badaude, norbanakoarenak zein taldearenak. Errealitate sozialean, beraz, dimentsio historikoaz gain, - gizarte baten egiturak dituen kokapen sozialak irudikatzeke ezinbestekoa dugu historikoki egituratu diren asimetriak eta gatazkak aztertzea – batera datoz dimentsio faktikoa eta dimentsio sinbolikoa. Dimentsio faktikoan pertsonak egiten dutena aztertu ahal dugu: hizkuntza batean ala bestean hitz egitea, ikasketak hemen ala han egitea... Kuantifikatzeko modukoak dira, eta horiek aztertu ondoren, datuak sortzen ditugu. Dimentsio sinbolikoan, **pertsonak esaten edo adierazten dutena aztertu ahal dugu: motibazioak, baloreak, sinismenak, ideiak, nahiak, helburuak...** komunikazio sinbolikoaren bidez, hizkuntzaren bidez, adierazten dituzten erreferente kultural eta ideologikoak. Esangura sinbolikoen adierazpen hori, diskurtsibitate horren azterketak ulermena eta interpretazioa bilatzen ditu.

Diskurtsoa “norbaitek elkarren arteko komunikazio egoeran ekoiztutako testua” dela dio Muchielli-k (1974)¹.

Diskurtsoen ekoizpen eta azterketak ekintzak kontestualizatzen laguntzen dute (Alfonso Ortí, 1996)¹

Diskurtsoaren azterketan (berezkoa eta askea), pertsonak hitz askearen erabilerara itzultzean (baldintza batzuen barruan), bere prekontziente ideologikoan sartzeko aukera ematen digu eta horrela bera osatzeko klabeak interpretatzen saiatu.

Azaleko planoan, Rafael del Aguila eta Ricardo Montoro-ren arabera (1984)¹ diskurtso guztiak interpretatu ahal dira esanahi ugari dituztelako diskurtsoek edo hizkuntzek. Autore horiek hizkuntzak hiru mailatan sailkatzen dituzte, euren eduki edo funtzioak kontuan hartuta:

- 1.- Gauzak esaten dituen hizkuntza (funtzio erreferentziala)
- 2.- Gauzak ezkututzen dituen hizkuntza (funtzio ideologiko edo estaltzailea, baina kritika ideologikoaren bidez interpretatu ahal da)
- 3.- Esanahien berri eman edo traizionatzen dituen hizkuntza.

¹ García, M.; Ibañez, J. Y Alvira, F. compilación (1996)

Horretaz gain, diskurtsoaren azterketa – Castilla del Pino-k dioen moduan (1974)¹ – **hizkuntzan jarrerak argitzen saiatzen da**, hizkuntza adierazpen bezala hartuta.

Diskurtsoaren maila eta elementu ez kontzienteen interpretazioaren modelo psikoanalitikoari jarraituta zera esan liteke: Saiakera horrek zentzurik ez dagoela dirudien lekuan zentzua emateko edo zentzua dagoenik ere pentsatuko ez genukeen lekuan bilatzeko joera duela esan liteke.

Plano sakonena da – diskurtsoaren interpretazioan mailarik subjektiboena ere bai – ikertzaile/soziologoa nahitaez interprete bihurtzen denean. Horretarako bi laguntza mota izango ditu, azterketa semiologikoa (diskurtsoa zeinu sistema bihurtu) eta batez ere, azterketa semantiko zabala (testuaren esanahiak pertsonaren portaeraren zentzu edo orientazioarekin duen erlazioa).

Hala ere, ikertzaileak ez dauka zertan izan behar semiologo edo ildo psikoanalitikorik hartu behar. Ikertzaile/interprete ideologikoen funtzioa apalagoa da eta ez hain zorrotza, baina errealistagoa eta pragmatikagoa. **Ikertzaileak izan behar duen funtzioa**- historialariaren moduan- **diskurtsoen orientazioa ideologikoa prozesu sozialen sorrera eta erreproduzioarekin erlazionatzea da**. Edo beste modu batean esanda, aztertutako diskurtsoak zein egoera eta prozesu historikotan sortzen diren kontuan hartu behar du eta horren ikuspegi globala izan, hori baita ikertzailearen interpretaziorako testuingurua.

Hau da, diskurtsoaren interpretazio soziologikoak **interpretazio pragmatikoak** dira. Helburua ez da “hitz egiten duen pertsona” “hizkuntzaren pertsona” izatea eta ezta “desioaren pertsona” (terapia psikoanalitikoaren moduan) ere. Diskurtsoaren azterketa soziologiko edo pragmatikoak, diskurtso hori sortarazten eta egituratzen duen egoera historikoaren prozesu eta gatazka sozial errealei erreferentzia egiten dio. Narciso Pizarro-k (1979)¹ dio pertsona batek esaldi bat ekoizten duenean ekintza sozial zehatza dela eta ekintza hori harreman sozial batzuen barruan gertatzen dela eta produktu horrek funtzio zehatza duela: praktika sozialen testuinguruan sartzen den eragin bat sortaraztea.

Alfonso Orti-k¹ dioenez diskurtsoen azterketa enpirikoak **errealitate sozialarekiko hurbilketa** enpirikoa dakar eta hurbilketa hori oso egokitzat jotzen du aktore sozialen portaeraren ulermena eta interpretazio motibazional sakona lortzeko. Aktore sozialen portaera hori, euren barruko orientazioari dagokiona da – sinesmenak, baloreak, desioak, irudi prekontzienteak, mugimendu afektiboak...- .

¹ García, M.; Ibañez, J. Y Alvira, F. compilación (1996)

Eztabaida taldea interpretazio motibazional sakona egiteko teknika kualitatiboa da. Interpretazio motibazional sakonerako tekniken ezaugarrietako bat da behaketa zuzena egiteko teknikak direla eta horrek berarekin dakar kontaktu bizia, hau da, aztertzaile eta eztabaida taldekideen arteko interakzio pertsonala kontrolatutako baldintzetan. Teknika horien bidez ikertzailearen eta taldekideen arteko benetako komunikazioa lortu nahi da; egoera horretan jasotzaileak mezuen igorleak ere badira eta ikertzaileak planteatutako galderak birformulatu ahal dituzte.

Psikologikoa eta soziologikoaren artean kokatuta, eztabaida taldeak – dio Jean Maisonneuve psikosozialgoak – ahalbidetzen du “ bizipen kolektiboa antzeman eta interpretatzea ... eta modu esperimentalean jokaerak eta ekoizpenak behatzea “ (1971)¹.

Eztabaida taldea konparatu izan da psikologia arloko talde dinamikarekin. Eztabaida taldearen helburua pragmatikoa, makrosoziologikoa eta taldetik kanporako da: taldea ideologia sozialak adierazteko besterik ez da erabiltzen, diskurtso ideologikoa ekoizteko unitatea bezala. Beraz, taldeen enfoke psikologikoen helburu terapeutikoekin kontrajarrita, eztabaida taldea estrato, klase edo gizarte global batean **nagusi diren errepresentazio ideologiko, balore, egitura imaginario eta afektiboak**, etab. antzemateko marko bat besterik ez da.

Teknika aske edo zabal honen bidez, taldearen errealitate sozialari buruzko eguneroko diskurtso ideologiko edo oinarritzko diskurtsoa sortu nahi da. Horrela, bere testuinguruan hobeto interpretatu ahal izango da topiko edo gaiaren balorazio motibazional afektiboa, berari buruz taldeak dituen sinismen eta espektatibak eta baita euren desio, erresistentzia eta beldur kontziente eta inkontzienteen proiektzioa. Horrela antzestutako **mikrogoerak** eta taldearen dinamika kontziente eta inkontzienteak sortarazten ditu taldekideen **makrogoeran topiko edo gaiarekin lotutako** oinarritzko emozioak, gatazkak eta nagusi diren arau sozialak.

Taldearen garapena – Jesus Ibañezek adierazten duen bezala (1969)¹– bi unetan aztertzen da: lehenengo unean (une psikoanalitikoa), talde dinamizatzailleak taldearen mikrogoera – fenomeno bakoitza egoera horretan agertzen dena dela interpretatuta - kontuan hartuta azterketa bat egiten du; gero, bigarren unean (une soziologikoa), azterketa bat egiten da makrogoera – taldean ematen den egoera taldetik kanpo ematen dena dela interpretatuta - kontuan hartuta. Diskurtso osoa grabatu egiten da, horren transkripzioa egiten da eta aztertu eta interpretatu egiten da. Modu horretan jasotako informazioaren

¹ García, M.; Ibañez, J. Y Alvira, F. compilación (1996)

azterketa semiologikoa egiten da – esanahiaren bila - , eta azkenean informazioaren interpretazio teoriko eta soziologikoa egiten da.

5.1. IKERKETARAKO TEKNIKA: EZTABAIDA TALDEA

Jesus Ibañezek(Ibañez, 1979)¹ horrela definitzen du eztabaida taldea: “**erreferentzia bezala hartzen den makrotaldearen mikrotaldea da**”. Eztabaida taldea egoera experimental bat da eta bertan ikerketaren gizarte egoeran dauden posizioak erreproduzitzen dira, hau da, eztabaida taldeen bitartez ikerketaren gizarte egoeran dauden diskurtsoak sortzen dira.

Eztabaida taldean talde basikoa eta lan-taldea biltzen dira. **Talde basikoaren** osagai bat dago, plazerraren printzipioan oinarritzen da pertsona batzuen bilera den neurrian. Horrekin batera, **lan talde** osagai bat dago, taldea errealitatean oinarritzen da, lan bat egin behar du, lan hori hitz egitea da, taldeak bere hizketaldia aurrera eraman behar du.

Aldi berean, eztabaida taldea talde manipulagarria eta simulatua da. Talde manipulagarria da ikertzaileak, azkenean, boterea bere esku duelako hizketaldia neurri batean bideratzeko, horrek ez du esan nahi ikertzaileak hizketaldia bideratuko duenik (gidoia beti irekia da), esan nahi duena da ikertzailearen eta taldekideen posizioak ez direla berdinak, ikertzaileak modu batean edo bestean, taldearen kontrola duelako neurri batean. Talde simulatua da taldekideak bertan daudenean osatzen delako taldea, hitz egiten duten bitartean taldea talde da; taldea ez zen talde bilera egin aurretik eta ez du talde izaten jarraituko taldekideak banatzen direnean.

Alfonso Ortirentzat¹ eztabaida taldea da **ikerketa motibazionalerako teknikarik egokiena**, bertan ematen direlako baldintza onenak agertzeko – bere kontraesan eta ñabardurekin – antzestutako egoeraren subjektibitate kolektiboaren oinarritzko egitura motibazionala

5.1.1. Eztabaida taldearen ezaugarriak

Kopurua.- Eztabaida taldea osatzeko kopuru ideala 8-10 pertsona dira, **gutxienez bost eta gehienez hamar** da kopuru egokia. Horren arrazoia da hamar baino gehiagorekin azpi taldeak sortu ahal direla, hots, hizketa ezberdinak (azpi hizketak) eta hori horrela gertatuz gero, taldearen hizketa bakarra hausten da eta

¹ García, M.; Ibañez, J. Y Alvira, F. compilación (1996)

orduan galdu egingo genuke gure analisirako lehengaia; kontuan izan behar dugu gure helburua taldeekin euren hizketa lortzea dela eta hizketa bakarra gainera (bestela ezingo genuke ezer aztertu). Bestalde, bost lagun baino gutxiagok taldearen talde izaera arriskuan jarriko luke; bi lagunek ez dute taldea osatzen bikotea baizik, hiru lagunetik aurrera osatzen da talde bat baina hiru edo lau lagunekin bakarrik, denek ez badaude arreta handienarekin taldean, taldea bera apurtu egiten da. Sarritan gertatzen da espero zena baino jende gutxiago etortzea bilerara. Hori saihesteko, behar dena baino jende gehiago lokalizatu ahal da

Lokalak bete behar dituen baldintzak hurrengo hauek dira:

- Baldintza teknikoak: leku **atsegina eta zarata gabekoa** ; mahaia txikia eta baxua: eta aulkiak komunikazioa bideratzeko posizioan egon behar dira.
- Baldintza “sinbolikoak”: lokala, parte hartzaileen bizitza errealetik kanpo egotea komeni da eta lekuaren itxura bat etorri behar da taldearen balore sinbolikoekin.
- Lokalak botere eta kontrolarekin lotzen ez dena izan behar du.

Bileraren hasiera .- Mahaiaren erdian magnetofonia jarriko da eta bileran esaten den guztia grabatuko da . Magnetofonia bileran egotearen arrazoia azaldu egingo zaie eztabaida taldea osatzen dutenei.

Bilerara etortzea eskertu ondoren, azterketaren helburuen berri emango du dinamizatzaileak eta “gaia” sartuko du. Horrekin batera, nolakoa izango den dinamikaren azalpena egingo du: denek hitz egin dezatela interesatzen zaigula, denen iritziak interesgarriak direla azpimarratuko da, nahi dena eztabaidatu ahal dela esango da.

Dinamizatzailearen papera bileraren arlo teknikoa zuzentzea besterik ez dela esango da eta, parte hartzaileek egituratuko dutela gaia.

Aurkezpenean (eta bileran zehar) dinamizatzaileak **kontrolatu beharreko puntuak** ondorengoak dira:

- **Ezin du** gaiaren inguruko **baloraziorik egin**, horrek ez du esan nahi gaiaren inguruko iritzirik ez duenik, baina bere lanean ezingo ditu adierazi
- Taldearen ezaugarrietara **moldatu behar du bere hizkera**. Arreta berezia eskaini beharko dio erabiliko duen hizkuntzari, hitzak eta kontzeptuak aukeratzeko orduan, askotan modu kontzientean ez bada ere, hitz egiteko

moduek traizio egiten digutelako. Horregatik, oso garrantzitsua da gidoi lana, bertan lantzen direlako erabiliko diren hitzak eta kontzeptuak.

- Autoritate morala izan behar du (transferentzia)

Bileraren garapena.- **Dinamizatzaileak** ahal duen eta gutxien parte hartuko du, baina hurrengo kasu hauetan **parte hartu** behar du:

- **Taldea isildu edo bere onetik irteten denean**. Isiltasunari aurre egiteko dinamizatzaileak taldekideren batek emandako iritziren bat berriz azalduko du (dinamizatzaileak ez du bere iritzirik eman behar polemika sustatzeko). Isiltasunei ez zaie beldurrik izan behar, askotan taldeak bere hizketa berrantolatu dezan balio dute. Taldekide guztien parte hartzea bultzatuko da eta isilik daudenak nola edo hala motibatu egin behar dira hitz egin dezaten.
- Taldeak beste gai bati buruz hitz egiten duenean. Une batez, taldea bere erara itsasoan kulunkatzen utzi behar da eta berriro proposatutako **gaiari heltzeko**, dinamizatzaileak parte hartu eta utzitako puntuan eztabaidara itzultzen saiatu behar du. Horretarako, taldearen hitzak eta esamoldeak erabiliko ditu, hau da, taldetik “hartu” eta taldera “bota” berriro.
- **Norbaitek eztabaida monopolizatzen badu**, dinamizatzaileak bere parte hartzea murriztu behar du.
- **Taldeak ez baditu gidoiari dauden gaiak aipatzen**, gai horiek sartu

Iraupena.- Eztabaida taldeak, gutxi gora behera, **bi ordu** irauten du. Saioaren hasieran iraupena zehazten da, denak jakinean egon daitezen; saio erdian talde erdia joango balitz, saioa errepikatu egin beharko genuke (profil berdineko baina taldekide ezberdineko taldea)

5.1.2. Gidoia

Gidoia ikertzaileak taldearekin lan egiteko prestatzen duen estrategia da eta helburuen arabera lantzen da. Sakondu nahi diren gaiak, kontzeptuak, dimentsioak..., sartzten dira, gai orokorrenetatik zehatzetaraino.

Gidoiak **hiru atal** ditu:

- **Aurkezpena**: ikertzaile taldearena edo bakarrarena, ikergaiarena (era orokorrean eta zehaztu gabe; taldeak, eta ez ikertzaileak, kontestualizatu behar duelako gaia) eta taldearen dinamikarena (nola burutuko den saioa).

- **Sarrera gaia:** gai hau ez da izango interesatzen zaigun gai berezia, taldeak bere hizketa hasteko gaia baizik. Taldeak berak gaia kontestualizatzea interesatzen zaigu, ondorengo azterketa egiteko funtsezkoa delako taldeak bere hitz eta ikuspegitik hasiera ematea ikergai zehatzari. Horregatik, garrantzitsua izango da zein gai aukeratuko den saioa hasteko, aukera horrek ondorio ezberdinak izango dituelako, hau da, taldeak hizketa/bide bat baino gehiago hartu ahal dituelako. Sarrera horrekin, taldeari denbora ematen zaio partaideak gaian koka daitezen.
- Azkenik, beti helburuak kontuan izanik, **gure intereseko beste gaiak** prestatuko ditugu.

5.1.3. Analisia eta emaitzak

Eztabaida taldea teknikarekin lan egiten dugunean **bolumen handiko materiala** biltzen dugu lana egiteko, izan ere, material hori transkripzioen osteko testuek osatzen dute.

Transkripzioak hitzez hitzekoak izan behar dira, **marka linguistikoak** (kakotxak, komak, etenak, puntuak, etab.) **zein para-linguistikoak** (intonazioak, barreak, oihiak, isiluneak, keinuak, etab.) kontuan hartuz. Horrela, ahozkoaren berezitasuna ez dugu idatzian galduko; jatorrizkoa ahozkoa denez, oso garrantzitsua izango da dena kontuan hartzea idatzizkoa ongi eta egoki ulertzeko.

Analisiaren klabea ikertzaileak egiten duen testuen **irakurketa sakonean** datza; beti ere, irakurketa sakon hori ikertzailearen zentzu kritikoari lotuta doa. Horretarako, honako puntu hauek kontuan izan behar dira:

- Taldeak nola ematen dion hasiera guk proposatutako gaiari
- Nola hitz egiten duten: hitzen eta gaien aukeraketa, gaiei buruzko argumentazioak..., ba ote dauden beste modu batzuk gauza bera adierazteko.
- Nola pasatzen diren gai batetik bestera; eztabaidak sortzen diren ala ez, nolakoak diren, gainditzen diren ala ez eta nola.
- Barreak edota isiluneak baldin badaude, taldearen interakzioan aztarnarik uzten duten kontuan izan.

Maila esplizitua zein implizitua kontuan hartzea oso garrantzitsua da; esaten dena bezain interesgarria esaten ez dena da, askotan hitz bakarragatik edo esaten ez denagatik ulertu ahal delako talde baten jarrera. Maila implizitua testuan dauden

hainbat elementuren bidez aztertu ahal da: intonazio bereziak, hitzen edo esaldien antolaketak, hitz egiteko zailtasunak, etab.

Testuak aztertzen direnean, kontua ez da hitzak zenbatzea, zenbat aldiz agertzen diren testuan ikustea. Hitz bakarra izan ahal da gai baten giltza sinbolikoa, behin bakarrik agertzen bada ere eta hitz hori ez da izango analisiaren elementu bakarra, bere zentzua hartuko du analisiaren gainontzeko elementuekin elkartzen dugunean. Diskurtso azterketan esaten dena bezain garrantzitsua da nola esaten den.

Analisia taldez-talde egiten da, talde guztiak aztertu direnean azterketa bateratua egiten da: taldeetan dauden posizioak finkatzen dira eta horrekin batera, euren deskribapena eta artikulazioa egiten da. Inter-testualitatea taldeen testuen arteko erreferentzia etengabea, oinarritzko kontzeptua da analisirako; hau da, talde bakoitzean adierazten dena beste taldeekin harremanetan dago, gizarte espazioa osatzen duten posizioek elkarren arteko indar harreman sinbolikoak mantentzen dituzte. **Ez dago ez posizio ez diskurtso isolaturik**, posizioak eta diskurtsoak elkarrekin harremanetan daude.

Richard Krueger-ek (Krueger, 1991)¹ dioenez analisiaren prozesua detektibe lana da. Taldeetan agertzen diren eskemak eta joerak diren aztarnak bilatzen dira. Ikertzailearen lana aztarnak kontuan hartuta zerbait baieztatzea edo azaltzea izango da. Baieztapen edo azalpen horiek taldeetan sortzen dira eta taldeetako materialean oinarritzen dira, ez da testuetatik kanpo dagoen zerbait asmatzen.

Krueger-en arabera eztabaida taldeetan sortzen den diskurtsoaren **analisia egiteko** bost **faktore** hauek hartu behar dira kontuan:

- Hitzak.- Erabili diren **hitzak eta nola erabili diren** aztertu beharko dira (taldeetako berdintasunak eta ezberdintasunak).
- Testuingurua.- Taldekide bakoitzak hitz egiten duenean estimulu bati erantzuten dio. Estimulu hori izan liteke ikertzaileak sartu duen gaia edo taldekide batek esan duena, kontuan hartu behar da zein egoeratan, zeri erantzunez hitz egiten duten. Hori dela eta, **nola planteatzen dituzten gaiak**, **nola argumentatzen** duten jaso behar dugu eta horrekin batera, taldean egiten diren aipamenak, gai baten legitimizazio iturriak.

¹ García, M.; Ibañez, J. Y Alvira, F. compilación (1996)

- Erantzunen barne koherentzia ebaluatu.- Talde batean taldekideen **ikuspegia aldatu** ahal da; aldaketa horiek ematen badira, ikertzaileak nola eta zergatik gertatu diren aztertu beharko du.
- Erantzunen zehaztugabetasun maila ebaluatu.- Ikertzaileak zerbait galdetzen duenean garrantzi handiagoa emango zaie norberaren esperientzian oinarritzen diren erantzunei -horien inplikazioa handiagoa izango delako- besteei entzundako azalpenetan oinarritzen diren erantzunei baino.
- Oinarrizko ideiak bilatu.- Analisia egin ondoren, ikertzaileak **oinarrizko ideiak** edo ardatzak finkatu behar ditu.

Jesus Ibañez-ek (García Fernando, M., Ibañez, J., Alvira, F., 1996)¹ **analisi** kualitatiboaren prozesuaren **bi une** aipatzen ditu:

- **Interpretazioa.**- Irakurketa egiteko unea da. Lehenengo irakurketan ikertzaileak testuen aurrean kokatzen du bere burua, ez da ezer azpimarratzen esploratorioa delako. Bigarren eta hurrengo irakurketetan azpimarrak egiten dira eta oharrak hartzen dira. Hori egiteko testua unitate esanguratsuetan (tematikoak, polemikoak ...etab.) banatu behar da, azpimarratzeak eta oharrak bertan eginez. Interpretazioaren une horretan intuizioa abiapuntu bat izan daiteke.
- **Analisia.**- Goian aipatutako intuizio horiek ebaluatu egin behar dira, hots, landutako teoriarekin uztartu behar dira. Ibañez-en arabera hiru maila daude analisiaren unean:
 - Elementuen maila edo maila minimoa.- Unitate minimoak aztertzen dira: izenak, izenondoak, aditzak, aditzondoak, metaforak...
 - Maila ertaina.- Talde bakoitzean dauden posizioak aztertzen dira (jarrerak, balorazioak, sinismenak...)
 - Osoko maila.- Maila bateratua eta bateratzailea da, hau da, gizarte posizioen arteko artikulazioa. Mikro (taldeen maila) eta makro mailaren (gizartea) arteko artikulazioa.

¹ García, M.; Ibañez, J. Y Alvira, F. compilación (1996)

6. EGINDAKO IKERKETA

Euskararen inguruan ekoizten diren diskurtsoak ezagutzeko **Matz-Erreka enpresan bi eztabaida talde antolatu** nituen, batean, zuzenekoan taldean, 6 lagunek parte hartu zuten eta bestean, zeharkako langileen taldean, berriz, 5 lagunek.

Hurrengo hauek dira eztabaida taldeak osatzeko erabilitako **parametroak**:

- zeharkako langileak / zuzeneko langileak
- partehartzaileen diskurtsoak desberdinak
- adina:25-55
- euskal hiztunak
- partehartzaileen arteko harremanak simetrikoak eta ez baztertzailak

Eztabaida taldeen iraupena 75 minutukoa izan zen.

6.1. ERABILITAKO GIDOIA

Alfonso Ortik¹ dioen bezala “Gertaera sozialen azalpena emateko, gertaera sozialak erregistratu, korrelazionatu, kuantifikatu eta egituratu egiten dira. Ulertzeko, diskurtsoak interpretatu eta aztertu egiten dira testuen bidez (adibidez: dokumentu historikoak, komunikabideei egindako deklarazioak, etab.) edo – gaur egungo azterketa soziologikoan – kontrolatutako elkarren arteko komunikazioan diskurtso ekoizpenaren bidez. Diskurtso horiek elkarrizketa sakon eta eztabaida taldeetan sortzen dira.”. Diskurtso horien aberastasuna ezagutzeko eztabaida taldeetan erabilitako galdetegian kontuan hartu beharrekoak dira ondorengoak:

- Aurkezpenean gaia sartu
- Galderak jaso nahi diren alderdiak jasotzera bideratuta egon behar dira. Ez dira ez irekiegiak, ez itxiegiak izan behar.
- Eztabaidan bertan ahal den eta informazio gehien lortu behar da.

¹ García, M.; Ibañez, J. Y Alvira, F. compilación (1996)

6.2. ONDORIOAK

Eztabaida taldeak egin baino lehen, ekoiztutako diskurtsoak lau multzotan sailkatu nituen aurrez eginiko **lan hipotesian**. Aurreikusten nituen diskurtsoak ondorengoak ziren:

- **Kontrako diskurtsoa** edo alferriko lanik ez: euskara erabiltzen ez denez, ez du zentzurik enpresa mailako esfortzurik egitea bere erabilera areagotzeko; enpresara produzitzera etortzen gara eta ez da dirua alferrik galdu behar euskararen inguruko kontuekin; euskararekiko jarrera agresiboa da.
- **Neutraltasun diskurtsoa** edo “Haizea nora, zapia hara”: euskararen egoera dagoena da eta horrela onartzen dute, ez dute aldaketaren beharrik ikusten; ez diote garrantzirik ematen harremanak euskaraz ala gaztelaniaz izateari; “horrekin gaztelaniaz hitz egiten badut zergatik hasiko naiz orain berarekin euskaraz?”; euskararen balorazio positiboa.
- **Intentzio onaren diskurtsoan** edo “Beti gure gain?": euskararekiko inplikazio positiboa dute baina, modu erosoan, hau da, ez dute arazo edo lan larregirik nahi.
- **Eragileen diskurtsoa** edo “Eutsi goiari!": ardura eta interesa adierazten dute euskararen inguruan; inplikazio ideologiko eta praktikoa; nortasun eta identitate sentimendua dago; ardura inplikazioa dago.

Eztabaida taldeak antolatu ondoren, ostera, **hiru diskurtso mota besterik ez nituen aurkitu**:

- **Indiferentzia diskurtsoa**: diskurtso horren ekoizleak egoera dagoen horretan onartzen dute, ez dute aldaketa beharrik sentitzen. Norberaren aukera dela euskara erabiltzea diote eta euskara arazo sortzaile dela ere bai. Arazorik edo lanik ez dute nahi, bestearekiko – erdal hiztunarekiko – errespetua aldarrikatzen dute eta euskara/gaztelania kategori desberdinetan sailkatuta ikusten dute.
- **Euskaltzale diskurtsoa**: euskara euren identitatearen oinarria dela diote eta euren buruak euskalduntzat dituzte. Gizartearen dimentsioa azpimarratzen dute eta euskara ama hizkuntza da. Esfortzua egitea euskararekin lotzen dute eta horretarako prest daude neurri batean. Euskara enpresan erabiltzeko gogoia dute eta euskara erabiltzeko plangintzaren beharra eta enpresa planean txertatuta egon behar dela aipatzen dute. Euskara ez erabiltzearen errua erdal hiztunena dela diote.
- **Diskurtso eragilea**: euskara gure hizkuntza, gure eskubidea eta altxor unibertetsala dela esaten dute. Nortasun sentimendua, euskaldun izatea, maitasun sentimendua

euskararekin lotzen dute. Inplikazio handia duten pertsonak dira, ardura eta konpromisoa euren ezaugarriak dira eta euskara erabiltzeko esfortzua eta lana egin behar dela onartzen dute. Euskaraz eroso daude, euskara beharrezkoa dela ikusten dute. Belaunaldi berriak kontuan hartzen dituzte, haiei bidea zabaldu behar zaiela diote. Euren burua euskaraz hitz egitera behartuta ikusten dute eta oraingoz gaztelaniak dituen aukera berak aldarrikatzen dituzte euskararentzat.

DISKURTSOAK

INDIFERENTZIA

Norberaren aukera
Arazo sortzaile
Aldaketa beharrik ez
Egoera dagoen horretan onartzen dute
Kategoria desberdina
Errespetoa
Arazorik edo lanik ez

EUSKALTZALEA

Identitatea
Gizartearen dimentsioa
Esfortzua
Erruduna erdal hiztuna
Euskaldun sentitu
Gogoa
Plangintzaren beharra
Empresa planean txertatuta
Ama hizkuntza
Enpresaren baloreak

ERAGILEA

Gure hizkuntza
Eskubidea
Altxor unibertsala
Euskaraz eroso
Inplikazio handia
Behartuta erdaraz egitera
Oraingoz gaztelaniak dituen aukera berak
Nortasun sentimendua, euskaldunak gara
Maitasun sentimendua
Esfortzua eta lana onartu
Ardura
Konpromisoa
Belaunaldi berriak kontuan
Euskara beharrezkoa

Aurreko grafikoan agertzen diren **posizioak kontinuum batean kokatuta daude**, hau da, indiferentzia diskurtsoko posizio batzuk euskaltzale diskurtso ekoizleengan ere aurkitzen dira eta, borondate oneko diskurtsoko posizioak diskurtso eragilean ere bai. Adibidez: “esfortzu edo lanik ez” grafikoan indiferentzia diskurtsoa eta borondate oneko diskurtsoaren artean kokatuta dago, neurri batean edo bestean multzo bietako pertsonak aipatu izan dutelako; “euskaldun sentitu” eragilean diskurtsoa eta borondate oneko diskurtsoaren artean kokatuta dago, multzo bietakoek horrela adierazten baitute.

Aurreko grafikoan ikus daitekeen moduan, **kontrako diskurtsorik ez da agertzen**. Eta hori horrela izateko **arrazoiak** aipatuko ditut jarraian:

1.- Erdal hiztunik ez izatea laginean.- Euskararen inguruan eraikitzen diren diskurtsoak ezagutzeko erabilitako laginean euskal hiztunak eta erdal hiztunak egonez gero, agian, kontrako diskurtsoa agertuko zen. Azterketa honen hutsunetzat hartu ahal da erdal hiztunik ez izatea laginean eta hor dugu, zalantzarik gabe, aurrera begira egin beharreko lan bat: euskararen inguruan eraikitzen diren diskurtsoetan sakontzeko euskal hiztunek eta erdal hiztunek ekoizten dituzten diskurtsoak ezagutu behar dira eta dauden posizio guztiak identifikatu.

2.- Ingurunearen eragina.- Matz- Erreka Antzuolan dagoen enpresa da. Antzuola oso herri euskalduna da, euskararen ezagutza edo euskal hiztunen portzentajea %76, da azken neurketaren arabera (2001) eta kopuru horrek nolabaiteko presioa eragiten du bertan bizi eta lan egiten dutenengan euskararen aldeko jarrerak sortaraziz. Antzuola, berriz, Debagoieneko herria da eta denen artean osatzen duten eskualdearen datuei begiratuz gero, euskararen ezagutza eta erabilera inguruko eskualdeetako baina altuagoa dela ikusten da.

3.- Inguruneko arau sozial subjektiboak – presio soziala, gehienetan gertuenekoengandik datorrena – eragina du gure portaeretan. Gure inguruko eniritzia oso kontuan hartzen dugu eta horren arabera, gure portaera onargarri edo ez onargarri gertatzeko probabilitatea aztertzen dugu. Adibidez, euskara enpresan erabiltzearen aldeko egoera sozial batean, jarrera oso kontrakoa duen pertsona batek ere, zalantza izango luke hori adierazteko.

Azter ditzagun banan-banan euskararen inguruan **eztabaida talde hauetan produktutako diskurtsoak**:

Euskararekiko inplikazio maila

Diskurtso mota	Euskararekiko inplikazio maila
Indiferentzia	Inplikazio maila arduragabekoa eta jarrera eroso Inplikazio praktikorik ez
Euskaltzalea	Ardura eta interesa Esfortzu eta lan neurtuak egiteko prest Inplikazio praktikoa
Eragilea	Inplikazio maila altua, posizio aktiboa Ardura, interesa eta konpromisoa Esfortzua egitea naturala da

Euskararen irudia

Diskurtso mota	Euskararen irudia
Indiferentzia	Ikuspegi estatikoa: dagoen egoera onartzen dute Arazo sortzaile izan liteke Komunikazio legimitaterik ez Euskararekiko errespetuaren kontzepturik aipatu ez
Euskaltzalea	Ikuspegi dinamiko: egoera aldatu ahal da eta aldatu beharra dago Nortasun sentimendua, atxikimendu Identifikazio elementua Kontzientzia linguistikoa
Eragilea	Ikuspegi dinamiko Euskara erabiltzeko eskubidea Nortasun elementua, atxikimendua Euskara nazio hizkuntza Euskaraz eroso Belaunaldi berria: konfiantza eta bidea zabaltzeko beharra Baloreak: Pertsonen asebetetzea eta inplikazioa Gizartean erantzukizuna

Egindako proposamenak

Diskurtso mota	Egindako proposamena
Indiferentzia	
Euskaltzalea	Eragileen jarrera eredutzat hartu Euskararen erabilerarako plangintza eta enpresako gestio planean txertatuta Motibazioan eragin
Eragilea	Lehentasuna euskaldunen artean euskara erabiltzea Euskararen inguruko plangintza eta enpresako gestio planean txertatzea Euskara erakargarri bihurtu eta jendea gustura sentitu Ez dakitenek euskara ikasi

6.2.1. Indiferentzia diskurtsoa

Diskurtso honetan ez da euskara baztertzen, euskararekiko inplikazioa arduragabekoa da. Euskararekiko ikuspegia estatikoa da, **hizkuntzaren egoera dagoena da eta horrela onartzen dute**. Ez dute aldaketa beharrik ikusten. Diskurtsoaren ardatza pragmatismoarena da.

Hizkuntzaren irudia

Diskurtso honetan ez diote garrantzi berezirik ematen harremanak euskaraz ala gaztelaniaz izateari, egoeraren arabera euskara ala gaztelania erabiliko dute. Gaztelania, denek ezagutzen duten hizkuntza da eta euskara bertako beste hizkuntza bat da, komunikatzeko denek ezagutzen duten hizkuntza erabiltzen dute.

Hizkuntzaren egoera edo izaera ez da problematizatzen. *“Nik hori erdaraz ikusten badut ez dit minik ematen”*.

Besteekiko **harremanetan euskara arazo sortzaile** izan liteke. Euskara ez da hartzen euskaldunen nortasunaren eragile funtsezkotzat, jendearen artean bereizketa egiteko modu bat baizik, albo batera uzteko modu bat bezala. *“Euskaraz egiteagatik zuk daukazu jaleoa. Sei tipo zoazte eta koadrilan bi lagunek*

ez dakite euskaraz. Zuk euskaraz egiten baduzu besteak ez dira enteratzen. Zuk hartu behar duzu erabakia “o le aparto a éste de aquí o..” eta agian hori zure lagun onena da”.

Etxean euskara erabiltzeari garrantzia ematen diote. Lanean berriz, gaztelania eta euskara dira harreman hizkuntzak.

Diskurtso honetan kokatzen direnak ez dute euren burua seguru ikusten euskaraz, euren bizitzaren zati handia erdaraz ematen dutenez euskaraz hitz egiteko erraztasuna galdu dute edo euskaraz dihardutenean erdararen interferentzia oso nabaria da. Hizkuntzaren eragina pertsonen arteko harremanetan oso garrantzitsua da; hizkuntza bat ez denean ondo ezagutzen edo berba egiterakoan ez badago segurtasunik, gutxiagotasun sentimendua sor liteke, besteen eskuetan zauden sentimendua (botere harremana, bestearekiko konplexua) eta hori hizkuntza aldaketarako arrazoia izaten da sarritan.

Indiferentzia diskurtsoan kokatzen direnentzat euskararen eta gaztelaniaren **gizarte onarpena ezberdina** da. Euskara umeekin erabiltzen da, gaztelania, berriz, helduen artean erabiltzen den hizkuntza da. *“Zu kalean zaude eta izugarria da!, andreak daude umeak zaintzen. Andreak erdara batean entzuten dituzu euren artean eta gero umeei dena euskaraz.”.*

Berezitasun hori murriztailea da euskararentzat: euskararen hiztunak ume eta etxe zuloetara mugatzen ditu eta heldu erdaraduna legitimo bihurtzen du.

Euskarari komunikazio legitimitaterik ez diote onartzen, denek ez dakitelako.

Euskaradunen eta erdaradunen arteko harremanetan errespetua, edukazioa eta komunikazioa azpimarratzen dira, hau da, hizkuntza bakarra dakienarekiko errespetua eta ez alderantzizkoa. Euskaradunekiko errespetuaren kontzeptua ez dute aipatzen.

Euskaradunen eta erdaradunen arteko **integrazioa** – berdintasuna – **bilatzen da**; ez dute kontuan hartzen berdintasun horrek euskaraduna eta euskara irensten dituela. **Mekanismo hori euskararentzat arriskutsua da**, euskararen eta euskaradunaren banakako legitimitatea onartuta, gizarte legitimitatea baztertzeko duelako errespetua, edukazioa eta komunikazio hitzak erabilia. Diskurtso horri erantzutea zaila egiten denez, euskararen normalizaziorako diskurtso arriskutsua da, integrazioaren izenean desberdina berdintzen duelako, hau da, gehiengoak gutxiengoa irensten du berdintasunaren izenean. Horregatik, talde batean denak euskal hiztunak badira eta bat bakarra erdal hiztuna, gaztelaniaz egitea onartzen

dute. Horrela, erdaraduna eroso egongo da eta indiferentzia diskurtsodunak ez badu euskaltzale edo eragileen diskurtsorik entzuten bere horretan jarraituko du.

Euskararekiko inplikazioa

Aurretik aipatu dugun moduan, multzo hau osatzen dutenen inplikazio maila **arduragabekoa** da. Euskararekiko jarrera ez da negatiboa, eroso baizik.

Ideologikoki euskarari bere lekua onartzen zaio gizartean baina, inplikazio praktikoari dagokionez, euskararen lekua gizartean edo enpresan gauzatzeko ez da aurrera egiten, **ez da pausorik ematen**, ez dutelako arazorik edo lanik nahi eurentzat. Euskara erabiltzeko aukera potentzialak adierazten dituzte baina ez aukera errealak.

Indiferentzia diskurtsodunak **ez dira errudun sentitzen** euskara ez dutelako erabiltzen. Euskararen oinarriko irudia ezagutzan kokatzen da (eta ez euskaraz bizitzean edo euskara lan hizkuntzat hartzean) eta horrekin batera euskararen inguruko arduragabeko jarrera nabarmentzen da.

6.2.2. Euskaltzale diskurtsoa

Diskurtso honetan kokatzen direnak euskararen inguruan ardura eta interesa agertzen dute. Hizkuntzarekiko ikuspegi dinamikoa dute, hau da, euskararen gaur egungo egoera ez da berez, goitik behera etorri delako, horretarako arrazoi batzuk daudelako baizik, eta horregatik, ez dute egoera bere horretan onartzen, aldatu ahal dela eta aldatu beharra dagoela aipatzen dute. Egoera aldatzeko esfortzu eta lanak egiteko prest azaltzen dira, hori bai, esfortzu eta lan neurtuak diskurtso eragiledunekin konparatuz gero. Diskurtso horren ardatza euskararekiko atxikimendua da, euskararekiko nortasun sentimendua dago.

Euskararen irudia

Diskurtso honetan kokatzen direnentzat euskara **identitate** ikurra da, **identifikazio** elementua da, **euskalduntzat dute euren burua** “*Euskaldunak garelako*”.

Gaztelania gizartean, enpresan dagoen beste hizkuntza da, hor dagoena, baina **lehentasuna euskarari** ematen diote. “*Zuk lehentasuna hizkuntza bati ematen diozu – euskarari – eta gero bigarren mailan beste hizkuntza batzuk egongo dira*”

Euskaldun izaeran euskara ezaugarri garrantzitsuenetarikoa da. Horretan bat datoz euskaraz hitz egiteko gaitasuna dutenak zein zailtasunak dituztenak hitz egiterakoan.

Gaztelania arazo sortzailetzat jotzen dute gaztelaniaz hitz egiteko zailtasunak dutenek *“Nik oso gaizki pasatu dut erdaraz berba egin izan behar dudan momentuan”*.

Euskara berezitasun ezaugarria da, euskaldunak berezkoa duen zerbait eta besteengandik bereizten zaituena eta hizkuntza horretako ideiak, kontzeptuak, hitzak, mundua eta ingurua ulertzeko berezko modua ahalbidetzen du hizkuntzak *“Hik gauzak esaten dituk euskaraz eta euskaraz esaten dituan gauzak ez dituk azaltzen berdin erdaraz”*.

Euskaltzale diskurtsoan kokatzen direnentzat batzuetan **euskara gatazka, arazo sortzaile** da, eguneroko lanetan normaltasuna bilatzen delako eta ez bereizketa. Indiferentzia diskurtsoetan ere, euskara arazo sortzaile zela agertzen zen baina, euskaltzale diskurtsodunak **ez du onartzen egoera bere horretan eta aldatzeko beharra** sumatzen du eta horretarako gogoia eta nahia azaldu ere bai. *“Eta jaleoak eta arazoak eta gaizki ikusiak eta horiek denak saihestegatik askotan erdarara jotzen dugu eta punto”*

Euskaltzale diskurtsoa indiferentzia diskurtsotik bereizten duen elementu funtsezkoenetakoa **kontzientzia linguistikoa** da. Euskaltzale diskurtsoan argi ageri da kontzientzia hori, euskara erabili egin behar da euskara berreskuratu nahi bada, euskara ezagutzea ez da nahikoa, hurrengo pausoa eman behar da, hau da, erabili, eguneroko bizitzan txertatu eta praktikan jarri.

Euskararekiko inplikazioa

Euskaltzale diskurtsodunen artean euskararekiko **ardura inplikazioa** dago eta euskararen egoera ez da beraiek nahi duten bezalakoa. Egoerari buelta eman behar zaiola adierazten dute eta hori aldatzeko nahia eta gogoia dute.

Euskara beraientzat garrantzitsua da eta euskararekin lotutako gaiekin **interesa** agertzen dute *“Euskara erabiltzen dut euskara bultzatzeko gogoia dudalako, euskaraz egiteko motibazioa hori da”*.

Euskara erabiltzeko behar hori ez dute mugatzen enpresara, gizartean txertatuta dagoen eta euskaldundu behar den mundua da enpresarena eta gainontzeko sektoreen euskalduntzearekin batera **gizartean euskararen normalizazioa lortzeko nahia** adierazten dute diskurtso euskaltzalean kokatzen direnek. *“Nik normalizazioa lortzeko nahia, gogoia dut, euskara soziedade guztian erabiltzeko, ez lanean bakarrik”*

Nahiz eta diskurtso honetan ardura inplikazioa egon, diskurtso eragiledunena baino apalagoa dela esan behar da. **Esfortzua eta lana egiteko prest** daude baina, **neurri batean** *“Egon behar zara hor denbora guztian pentsatzen euskaraz egin behar duzula bestela txipa aldatzen duzu eta..” “Erdarara errazegi joaten gara, samurrera egiten dugu”*. Euskara erabiltzeko bultzada edo presioa batzuetan kanpoan bilatzen dute, hau da, ingurukoek eskatuta edo presionatuta euskara gehiago erabiltzen dela diote. *“eta nik euskaldunarekin erdaraz egin dudan denetan ez da egon euskaldun bat esan didana, euskaraz ez dugu egingo edo zer hostixa?, ... inork ere ez dit esan”*.

Talde mistoetan, hau da euskaradunak eta erdizka dakitenak, euskara erabiltzeko esfortzua egin behar dela onartzen dute. Horrelako egoeretan norberak jokatu behar duen papera zein den badakite eta batzuetan bultzatzaile rola hartzen dute. *“Noizbehinka egin izan dugu saiotxo bat,..akordatzen zarenean saiatu egin behar gara,..pixka bat jolas modura..., gero dinamika horretan sartzen zara eta denbora eta hasten denean..., laga izan dugu. Egon behar duzu oso... tablero bat pizten denean bezala..., saiatu egin behar zara bestela berriro bueltatzen zara beste dinamikara”*. Euskararen erabileran eragiteko euren eguneroko lan harremanetan denbora guztian hizkuntza kontuan izan behar dutela eta hori neketsua dela onartzen dute.

Euskara ikasten ari direnak bi multzotan banatzen dituzte: bata, ikasten ari direnak eta eskatzen dutenak beraiekin euskara erabiltzeko eta bestea, ikasten ari direnak baina ez dutenak eskatzen beraiekin euskara erabiltzeko. Lehenengo multzokoekin esfortzua egin, egin behar dute baina, inizatiba eta interes handiena ikasten ari direnena da eta euskaltzale diskurtsodunak hori begi onez ikusten dute, ez delako dena beraien gain lagatzen. *“Hori da adibidea..., denbora hartzen du..., eta hitz bat bera ere ez erdaraz eta norberak euskaraz eginez gero, berak euskaraz erantzun” “Ikasten dabilenarekin pazientzia pixka bat behar duzu”* Bigarren multzoan, inizatiba hartzen ez dutenak daude eta horiekin esfortzua egitea gehiago kostatzen zaiela onartu dute.

Euskaltzale diskurtsoan kokatzen direnek badakite egoera aldatzeko bidea zein den eta bide horretatik aldentuz gero, **errudun sentitzen** dira. *“Askotan samurrago joaten gara bestera, hori da gure falloa”*

Diskurtso honetan ere indiferentzia diskurtsoan agertzen zen elementua agertzen da: **berdintasuna, errespetua**. *“Erdaldun bat baldin badago, erdaraz joko dut berba egitera, ez ikustearren bestea lurrera begira itxoiten konbertsazioa bukatu*

arte..., denok entenditzeko, igoalean egotearren". Indiferentzia diskurtsodunekin konparatuz gero, euskaltzale diskurtsodunek horrelako egoeretan ez dira euren buruekin gustura egoten eta euren portaera zein izan beharko litzatekeen ere badakite.

Euskaltzale diskurtsodunentzat, **Kooperatiba izateak abantailak** ditu euskararen erabileran eragiteko orduan. Kooperatibetako organoetatik, Batzar Orokorra, Kontseilu Errektore eta Kontseilu Sozialetik euskararen erabileran eragiteko planak bultzatzen direla adierazten dute, horrelako organoetan aukera baitago arlo sozialarekin lotuta dauden gaiak lantzeko.

Inplikazio ideologikoari dagokionez, euskaltzale diskurtsodunek euren buruak euskararekiko gertu ikusten dute euren identitate hizkuntza da eta. Gertutasun horri, interesa eta ardura gehitzen zaizkio.

Inplikazio praktikoan zailtasunak agertzen dira eguneroko bizitzan. Eguna joan eta eguna etorri gaztelaniarekin elkar bizitze horrek esfortzua eta lana eskatzen diote eta hori, neurri batean behintzat, onartzen dute eta egiten dute badakitelako hori dela euskararen egoera hobetzeko dagoen bidea.

Proposamenak

Euskaraz ondo ez dakitenekin pazientzia hartu behar da eta jolas horretan sartu. Hori bai, ikasten ari denak borondatea agertu behar du eta gogor jarri behar da eta behin eta berriz eskatu berarekin euskaraz hitz egiteko, ardura dena euskaltzale diskurtsodunen gain utzi barik.

Eragileen jarrera goraiatzen dute eta horien pausoak eta euskararekiko duten portaera adibide eta eredutzat hartzen dute. Badakite hori dela **bidea** euskararentzat.

Euskararen erabileran eragiteko **plangintza** egotea beharrezkoa da eta horretaz gain, euskararen plana enpresako gestio planean txertatzea ezinbesteko baldintza da, horrela instituzionalizatuz legitimatu egiten delako euskararen estatusa, prestigioa ematen zaiolako eta bizitza aseguru bat bezalakoa delako enpresetan.

Euskaltzale diskurtsodunek **motibazioan eragin** beharra dagoela uste dute. Euren buruei begira gora beherak izaten dituztela konturatzen dira eta motibazioa landu egin behar dela goiko mailan eusteko. *"...lehenago zen hori, euskara eta... eta alde guztietan egin behar da eta babestu egin behar da, saiatzen denari eta... hor azkenean da, motibazio bat eta denbora horretaraxe dedikatzeko"*. Bestalde,

motibazioarekin lotutako ekintzak ekintza seriotzat ez hartu arren, beharrezkotzat jotzen dute euskara bultzatzeko eta normalizazio batera heltzeko. *“..beste zer edo zer egin,... beste gauza batzuk estraofizialak edo, txorradak,... igual txiste lehiaketa edo.., ildo hori jorratzeko”*

6.2.3. Eragile diskurtsoa

Diskurtso honetan kokatzen direnek euskararekiko ardura, interesa eta konpromisoa adierazten dute. Hizkuntzarekiko ikuspegi dinamikoa dute, euskararen egoera aldatzeko eragiletzat dute euren burua. Posizio aktiboa dute eta inplikazio maila altua da. Diskurtso honen ardatza euskararekiko atxikimendua da, nortasun elementua eta euskara erabiltzeko eskubidea dutela aldarrikatzen dute.

Euskararekiko irudia

Diskurtso eragilean kokatzen direnak euskara gure hizkuntza dela adierazten dute, **nazio hizkuntza** - Euskal Herrikoa -, euskararekiko **nortasun sentimendua** agerikoa da eta euskalduna izatea euskaraduna izatea dakarrela diote. *“Arrazoi printzipala euskaraz egiteko euskaldunak garelako” “...*

Euskaltzale diskurtsoarekin alderatuta, eragile diskurtsoan **euskaraz eroso** sentitzen dira, erraztasun handiagoa dute eta euskaraz samurrago sentitzen direnez hor ikusten dute gustura euren burua.

Euskara erabiltzea denok dugun **eskubidea** dela adierazten da diskurtso honetan, euskaraz dakienak, euskaraz egin nahi duenak egin ahal izan dezan. Nahiz belaunaldi berriek nahiz aurretikoek, euskaraz bizi nahi duenak euskaraz bizitzeko eskubidea izan ahal izatea aldarrikatzen dute. Beraiek gaztelaniak dituen besteko aukera guztiak nahi dituzte euskararentzat eta hori lortzeko, parekatze hori, enpresan inbertsioak egin behar dira, baliabideak eskura jarri behar dira eta azpiegitura sendoak sortu.

Diskurtso honetan euren burua gaztelaniaz hitz egitera behartuta ikusten dute, ez da norberak aukeratutakoa, baina, ezinbestez onartu behar dena. Oraingoz eskatzen dutena da euskarak gaztelaniak dituen aukera berak izatea. *“...hemendik 100 urtera ni biziko banintz Euskal Herria euskaldun bat eskatuko nuke, baina gaur egun Euskal Herria ele biduna eskatuta nahikoa da, batak bestea zapaldu barik.”*

Euskara berreskuratzea ez dela egun batetik bestera egiten adierazten dute eta geroa, etorkizuna, euskararekin lotuta ikusten dute.

Eragile diskurtsoan kokatzen direnak euskara altxor moduan ikusten dute, gorde behar den **altxor unibertsala**, hau da, hizkuntzaren ikuspegi zabala dute, munduko aberastasun kulturala osatzeko euskarak ere bere lekua badu, eta hori ere, euskara berreskuratzeko arrazoi multzoari gehitu beharrekoa da. Altxor izate hori erabilerarekin lotzen da, ez da museoan edo liburuetan agertzeko altxorra, baloratzen dena euskara erabiltzea da, erabiltzeko gaitasuna eta komunikatzeko gaitasun hori edukitzea, hori baita hizkuntza beraientzat.

Orokorrean, **belaunaldi berriengan konfiantza** jarrita dute, euskararen erabileran eragiteko “euskal hiztun gaztea eta alfabetatua” profila betetzen duenak ekarpen handiagoa egingo diolako euskarari. Euskaraz hitz egiteko ohitura eta erraztasuna duenak eta euskaraz irakurtzeko eta zailtasun txikiko zein handiko testuak idazteko gaitasuna duenak lagundu egingo du eta asko, enpresako euskararen egoera hobetzen. “... eta etortzen bada jendea hau bezalakoa, ... horrek asko lagunduko du”

Eragile diskurtsodunen artean oso garrantzitsua da **belaunaldi berriei lan munduko bideak euskaraz zabaltzea**, hasitako bideari jarraipena emateko eta etena saihesteko. Hezkuntza munduan egindako esfortzu handiari esker, ikasketak euskaraz egiteko aukera egonda ere, sarritan enpresara jauzi egiten dutenean gaztelaniara jauzi egiten dute, eta ordura arte ikasitakoa ere, galtzeko arriskuan egoten da batzuetan. Enpresa, batzuentzat, gaztelania ikasteko aukera izan da “*uniko erdaraz hementxe,...batzuk kostunbre hori daukatelako, beste batzuk ez dakitelako*” “*eta euskara apur bat alde batera ixteko eduki dudak aukera bakarra izan da fabrikari juntu naizenean ingurukoak erdaldunak direnean..*” Hala eta guztiz ere, gaur egungo egoera kritikatzeko, inguruan ikusten dutelako jende gaztea lanean sartzen dela eta handik denbora batera, ez zaiolako aukerarik eskaintzen euskara erabiltzeko trebetasun batzuk praktikan jartzeko. Egoera hori enpresaren interes faltari egozten diote eta pertsonen gaitasun guztiak garatzeko erraztasunak jarri behar direla esaten dute.

Eragile diskurtsoan agertu den beste kontzeptu bat baloreena izan da. Enpresak, dirua irabazteaz gain, pertsonen asebetetzea eta inplikazioa bilatzen du. Asebetetze eta inplikazio hori, pertsonala nahiz gizartearekin lotutakoa izan ahal da. Guzti horiek enpresaren **baloreen artean** daude eta inguruarekiko inplikazioan, euskararen normalizazioarekin enpresak duen konpromisoa aipatzen da.

Euskararekiko inplikazioa

Eragile diskurtsodunen artean **ardura eta konpromiso inplikazioa dago** eta euskararen egoera hobetu beharra dagoela aipatzen dute egoera hori ez delako beraien nahi duten bezalakoa. Egoera hori aldatzeko nahia eta gogoia adierazten dute, oraingo egoerari aurre egin eta euskararentzat esparruak, funtzioak, hiztunak..., irabazten joan. Esparru, funtzio, hiztun irabazte hori beharrezkoa dela uste dute euskararen biziraupenerako eta horretan jarraitu beharra dagoela adierazten dute gutxienez, gainontzeko hizkuntzen, gaztelaniaren egoeraren pare egon arte. *“...eta nire ingurua euskaldundu nahi dut den baino gehiago eta euskarak merezi duen eta behar duen tokia beharrezkoa delako,... besteen parean gutxienez”*

Etorkizun bateko egoera irudikatzen dute behin baino gehiagotan, hau da, euskararen egoera nolakoa izango den, zer ezaugarri izatea nahi duten, zer baldintzatan egotea espero duten, irudikatu izan dute. *“Euskara leku denetan erabili ahal izango balitz, hobeto..., komodoago sentituko nintzateke ni neu”*

Euskararekiko interesa erabilerarekin lotzen da, hau da, euskararekiko interesa duenak euskara erabiliko du eta hori gogoan izango du leku guztietan. Eta erabilerak, dudarik gabe, aurrera pausoak ematea dakar. *“... azkenean pausoak aurrera ematea hori da, ezta?...jakin baldin badakizu hark euskaraz dakiela eta niri erdaraz berbetan hasten bazait, nik erdaraz jarraitu beharrean, euskaraz erantzun, jata euskaraz erantzun eta bihar euskaraz erantzun eta asteazkenean euskaraz, aste bukaeran euskaraz erantzun, azkenean zer egingo du? Hark euskaraz egitera joko du, zergatik?, badakielako euskaraz erantzun...”*

Esfortzua euskararen inguruan eta arlo guztietan egin behar dela azpimarratzen dute eta, euskaltzale diskurtsodunekin alderatuta, hori, esfortzu hori egitea normalizat jotzen da, zerbait lortzeko edozein arlotan lana egin behar delako. Batzuk euskararen inguruan egin beharko dute esfortzua, beste batzuk salmenta tekniken inguruan, beste batzuk ingelesaren inguruan eta beste batzuk esfortzu handiagoa egin beharko dute beste arlo batean. Diskurtso honetan kokatzen direnek, nolabait **esfortzuaren kontua “normalizatu”** egin behar dela esaten dute eta duena baino garrantzia handiagorik ez zaiola eman behar, zerbait lortzeko esfortzua modu naturalean onartu besterik ez dela egin behar. *“ azkenean, esfortzuaren kontua ere ezin da bakarrik euskararen kontu horretan zentratu,... denerako egin behar da esfortzua, ezta?”*

Eragile diskurtsoan kokatzen direnek adierazten dituzten euskararekiko **sentimenduak afektibitatearekin lotura** dute, maitasun sentimenduak azalarazten dituzte. Euskal hiztunak irabazteko, ez dakienak ikasi egin behar du eta ikasterakoan maitasun sentimenduak egoteak prozesua errazten duela uste dute.

Eragile diskurtsodunek ideologikoki euskara oso gertukoa dute, euren nortasun hizkuntza da. Euskararen egoera ez da eurek nahi duten bezalakoa eta egoera horretara heltzeko badaude arrazoi historiko, politiko, ekonomiko eta sozialak. Egoerari buelta emateko ere, bideak badaude eta horretan eurek ardura dute eta ezinbesteko eragile dira,

Inplikazio praktikoan berriz, **euskararen egoera hobetzeko lan egiten dute** eta lan egiteko prest daude eta lan horretan, euskararen erabileran indarrak jarri behar direla azpimarratzen dute, batez ere euskal hiztunen artean euskara erabiltzea ezinbestekoa jotzen da, gainontzeko neurriekin alderatuta, euskal hiztunek euren artean euskara erabiltzeak du lehentasuna eta hori praktikan jartzen dute. Euskara erakargarri bihurtu beharra dagoela uste dute eta erakargarri bihurtzeko bidea euskara dakitenen artean erabiltzea dela .

Proposamenak

Euskara euskaldunen artean erabiltzeari lehentasuna ematen diote eragile diskurtsodunek. Horren atzetik, bestelako neurriak hartu behar direla aipatzen da: kontratazio berrietan euskara exijitu, errotulazioan eta dokumentazioan euskara ere erabili, lanpostuetan derrigorrezko euskara maila jarri... . Errotulazioa eta dokumentazioa euskaraz jartzea lanik errazenetarikoa dela eta horrek lagundu, laguntzen dutela aipatu dute, batez ere jendeari gogorarazteko euskararen normalizazioa lortzen saiatzen ari garela baina ez dute ikusten jendeak euskara erabiltzeko bidea bezala. Bidea, euskara erabiltzea da, hori denentzat erakargarri bihurtu eta jendea gustura sentitu euskararen inguruan.

Euskaltzale diskurtsodunak bezala hemen ere, eragile diskurtsodunen artean **euskararen inguruko plangintza** beharrezkoa dela uste dute eta euskara plan hori enpresako gestio planean txertatzea ere bai. Matz-Errekan horren inguruan hartutako erabakiei ondo deritzote eta bide horretatik jarraitu behar dela adierazten dute, enpresako gestio planean euskara proiektua sartzea bermea delako.

Enpresak kokatuta dagoen inguruneari begiratu behar dio eta bertara egokitu. Enpresa ez da gizartetik kanpo isolatuta dagoen zerbait. Gainera, Matz-Erreka oso

herri euskaldunetan dago eta horrek eragina du: *“Hau Tuteran edo Gasteizen egongo balitz ez zen berdina izango, dudarik ez”*

Matz-Erreka ele biduna lortu arte lanean jarraitzea proposatzen dute eragile diskurtsoan kokatzen direnek. Euskaraz bizitzeko gogoia duen edozeinek bizi ahal izatea, inongo traba eta oztoporik gabe.

Euskararen erabilera bermatzeko enpresan, **euskaraz ez dakitenek** erabil dezaten lehenengo eta behin **ikasi** egin behar dutela aipatzen da eta hori horrela izan behar dela, ez bada nahi gertatzerik orain arte sarritan gertatu dena: lanean hasi baino lehen euskara besterik erabili ez eta, lanean hasi eta gaztelania besterik erabili ez.

7. HIZKUNTZA NORMALIZAZIO PROZESUARI EKITEKO ARRAZOIAK

Matz-Errekako eztabaida taldeetan jasotako diskurtsoetan, euskararen normalizazio prozesuari ekiteko arrazoiak edo argudioak jaso dira aurreko lerroetan. J.Inazio Markok “Euskara bultzatzeko erantzukizuna eta enpresak” (www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1084208726) artikuluan gaia aztertze 5 sektoretan (Eusko Jaurlaritzak, Hizkuntza Teknikariak eta Aholkularitzak, Direktiboak eta Enpresariak, Langileak eta Sindikatuak eta Kooperatibak) bildutako dokumentazioaren berri ematen du. Ondorengo lerroetan **J.Inazio Markok jasotako argumentuen eta Matz-Errekan 3 sektoretan jasotako argumentuen arteko konparaketa** egingo da. Konparazioa egiteko aukeratutako sektoreak direktiboak, langileak eta kooperatibak dira, hiru sektore horiek ordezkatu baitzituzten Matz-Errekako eztabaida taldeetan parte hartu zutenek.

J.Inazio Markok bildutako argumentazioaren sailkapenean bost **enfoke nagusi** bereizi dira, beste zortzi azpiefokerekin batera, guztira hamar:

- 1.- Ikuspegi soziolinguistikoa/Euskara
- 2.- Nahikundea
- 3.- Langileak
 - 3.1.- Eskubideak eta garapena
 - 3.2.- Lan harremanak

3.3.- Kohesioa eta Identifikazioa

4.- Enpresa

4.1.- Kalitatea eta Balio Erantsia

4.2.- Irudia

5.- Gizartea

5.1.- Komunitatea eta Harmonizazioa

5.2.- Erantzukizuna

5.3.- Gizartea.Legea.

1.	Enfokea: Euskara
Zuzendariak	Langile portzentaje handi bat euskalduna izatea.
Langileak	<ul style="list-style-type: none"> Langile gazte berrien euskara-maila dezentekoa. Euskararen presentzia gizarte alor guztietara hedatzea baldin bada helburua, ezinbestekoa zaigu lan-mundua euskalduntze prozesuan sartzea. Euskara gizarte mailan aurrera egiten ari da nabarmen. Lan-munduan ere progresio positiboa gertatzen ari da.
Kooperat.	Enpresa munduak euskalduntze prozesuaren botila-lepoarena egiten du gaur egun.

2.	Enfokea: Nahikundea.
Zuzendariak	Enpresa modernoa eta euskaraz funtzionatuko duena nahi izatea.
Langileak	Langileen nahia.
Kooperat.	Belaunaldi berrien nahikunde linguistikoak. Belaunaldi berrietako zati handi bat euskaraz lan egiteko motibatuta dago.

3.1	Enfokea: Langileak. Eskubideak eta garapena.
Zuzendariak	Langile edo pertsonal politika egokia lortzea enpresaren onerako da. Horretan kokatu behar da euskaraz lan egiteko eskubidea.
Langileak	<ul style="list-style-type: none"> Euskaldunari euskaraz aritzeko eskubidea eta aukera bermatzea. Erdaldunari euskalduntzeko eta euskal gizartean integratzeko eskubidea eta aukera eskaintzea.
Kooperat.	Ekimen kooperatiboaren helburua pertsonaren garapen osoa lortzean datza, horretan garapen linguistikoa sartzen da.

3.2	Enfokea: Langileak. Lan-harremanak.
Zuzendariak	<ul style="list-style-type: none"> ■ Euskara tresna eraginkorra da langileak eta ingurunea gogobetetzeko komunikazioan. ■ Euskara planak beste komunikazio aukera bat zabalitzen du, barne harremanetan, bezeroekin eta hornitzaileekin. Aukerak zabalitzea esan nahi du.
Langileak	
Kooperat.	

3.3	Enfokea: Langileak. Kohesioa eta Identifikazioa.
Zuzendariak	<ul style="list-style-type: none"> ■ Langileak gogobetetzeko eta motibatzeke ere eraginkorra da euskara erabiltzea enpresan eguneroko eta ohiko harremanetan, zuzendaritza-taldeko pertsonak eta langileak elkarrengana hurbildu egiten baitu. ■ Langileen integrazioa Lantegi Proiektuan. ■ Langileek enpresarekiko duten identifikazio-maila handitu.
Langileak	■ Euskara kohesio sozialerako faktore inportantea ere bada.
Kooperat.	■ Langileen motibazio-iturri osagarria. Kooperatibak indartsu direneko eskualdeetan, euskararen aldeko motibazioa bereziki bizia da. Honek guztiak euskara lanerako motibazio-iturri bihurtzen du. Aukera hori langileentzat zabalitzea, aukera da enpresarentzat.

4.1	Enfokea: Enpresa. Kalitatea eta Balio erantsia.
Zuzendariak	<ul style="list-style-type: none"> ■ Kalitatea ulertzeko dugun erak lau alderdi hauek hartzen ditu kontuan: Bezeroak, Langileak, Ingurunea eta Enpresa gogobetetzea. ■ Euskara komunikazio-tresnatzat jo eta erabiltzea da Hobekuntza-prozesuaren gakoetako bat, erabilera horrek hitzak eta esanahiak gerturatuko dituelako. Kalitateak eta euskarak ezinbestez, lotuta joan behar dute enpresa euskaldunean. ■ Kalitateak enpresa-proiektua osatzen duten pertsona guztien gogobetetzea eta ingurunearekiko errespetua eta harmonia esan nahi du.
Langileak	
Kooperat.	

4.2	Enfokea: Enpresa. Irudia.
Zuzendariak	<ul style="list-style-type: none"> ■ Merkatu globalean bereizketa-faktorea behar da. Etiketa hori euskara izango da. ■ Enpresak proiektu aurrerakoiei aurre egiteko duen gaitasuna azaltzen du.
Langileak	
Kooperat.	■ Kooperatiben irudi sustraitua. Gai hau marketing arrazoietatik askoz harago doa, baina irudi aldetik ere aukera izan liteke kooperatibentzat.

5.1	Enfokea: Gizartea. Komunitatea eta Harmonizazioa
Zuzendariak	<ul style="list-style-type: none"> ■ Egungo erronkei aurre egiteak pertsonetik eta enpresak bere jarduera burutzen duen ingurunearen eskariekiko sentikortasun handiagoan oinarritutako kultura sendotzea eskatzen du. ■ Enpresan gertatzen dena gizartearen isla da.
Langileak	■ Gizartearen euskararekiko atxikimendua

	<ul style="list-style-type: none"> ■ Langileok uste dugu euskararekin gizartean gertatzen ari den aurreratze hori enpresan ere errelejatuta beharko litzatekeela. ■ Enpresaren interesa da gizartearekin batera eboluzionatzea eta bere interes ekonomikoak eta gizartearenak harmonizatzea.
Kooperat.	<ul style="list-style-type: none"> ■ Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren muinean integrazio bat dago: logika ekonomikoaren eta helburu sozialen arteko integrazioa. ■ Izan ere, "hazkunde ekonomikoa zertarako?" da sakonean dagoen galdera nagusia. ■ Hazkunde ekonomikoak zentzua izan dezake baldin eta arlo pertsonala eta komunitarioa, soziala eta kulturala orekan garatzeko aukera ematen badu. ■ Kooperatibismoaren berezko ezaugarrietako bat izan da bere sustraitzea. Horretarako bideetako bat toki bakoitzeko hizkuntza-ekologia zaintzea eta hizkuntza garapena bultzatzea da.

5.2	Enfokea: Gizartea. Erantzukizuna.
Zuzendariak	<ul style="list-style-type: none"> ■ Hizkuntzarekiko begirunea eta languneetan euskararen erabilera sustatzea enpresak aztertu eta integratu behar dituen alderdiak dira. ■ Hizkuntz normalizazioaren aldeko apustua egin behar dugu laneko harremanetan ere gure gertuko ingurunearen helburuei ekarpenak egiteko. ■ Aberastasuna sortzen duten enpresa eta enpresariak badute, bestelako rol eta betebeharririk ereka sozialean. ■ Enpresa ez dago gizartearen egituretatik kanpo. Ondorioz, ezin da gizartearen gehiengoak euskararen alde bultzatu duen mugimendutik at gelditu. Aitzindari eta eragile aktiboa izan behar du hizkuntzaren normalizazioan. Hori ere kalitatea da.
Langileak	<ul style="list-style-type: none"> ■ Langileok uste dugu euskararen normalizazioaren alde egitea lan-munduko eragileon ardura ere badela. ■ Langileon euskararekiko ardura eta konpromisoa. ■ Sindikatuok ere gizarte eragile bezala, eta lan merkatuan zuzenean parte hartzen dugun heinean, geure erantzukizuna aitortzen dugu.
Kooperat.	<ul style="list-style-type: none"> ■ Erantzukizun handia du kooperatibismoak euskararen normalizazio prozesuan. ■ 9 Kooperatiben printzipio nagusi eta arautegietan ere izan du bere isla euskararekiko konpromisoak. ■ 9 Gaur egun, inguruko pertsona eta gizartearekin konpromisoa izateak bere hizkuntza-garapena errespetatu eta bultzatzea ere esan nahi du. ■ 9 Kooperatiben ekina berebizikoa da euskararentzat. Une berezi honetan, kooperatibek berebiziko zeregina joko dezakete. Euskal Herriko enpresen artean, MCCn biltzen diren kooperatibak izan daitezke euskararen garapeneko aro berri honen aitzindari. Eta izan ere hala dira une honetan, datuei begiratuta.

5.3	Enfokea: Gizartea. Legea.
Zuzendariak	
Langileak	<ul style="list-style-type: none"> ■ Euskara Euskal Herriko bertako eta berriazko hizkuntza izateaz gain, EAEn ofiziala ere bada.
Kooperat.	

Matz-Errekan jasotako argumentuak hurrengo enfoke hauekin daude lotuta:

- Ikuspegi soziolinguistikoa - Euskara
- Nahikunde

- Eskubideak eta garapena
- Kohesioa eta identifikazioa
- Komunitatea eta harmonizazioa
- Erantzukizuna

Ikuspegi soziolinguistikoari begira Matz-Errekan jasotako argumentuak hurrengo hauek dira: Matz-Errekako gehiengoa euskalduna dela, langile gazte berriek euskara maila ona dutela, ezinbestekoa dela lan-munduan euskara prozesuan sartzea gizartean euskararen normalizazioa lortu nahi bada, euskarak enpresan aurrera egin duela eta lan munduak batzuetan euskalduntze prozesuari bidea estutzen diola.

Nahiarekin lotutako arrazoiak berriz, ugariak dira. Besteak beste, langileek diote euskara erabiltzeko eta bultzatzeko nahia eta gogoia dutela, euskaraz funtzionatzen duen enpresa nahi dutela eta belaunaldi berriak euskaraz lan egiteko prestatuta eta motibatuta daudela eta euskaraz lan egin nahi dutela.

Eskubide eta garapenari buruzko argumentuak ere, aipatu dira eztabaida taldeetako diskurtsoetan. Euskaraz dakienak, euskaraz aritu nahi duenak, euskaraz bizi nahi duenak horretarako eskubidea du eta aukera hori izan behar du; erdaldunari euskara ikasteko eskubidea eta aukera eskaini behar zaio, Matz-Erreka kooperatiba izanda pertsonaren garapen osoa lortzea du helburu, garapen linguistikoa barne.

Kohesioa eta identifikazioari enfokatutako argumentuak dira ondorengoak: langileen nahia baldin bada euskaraz lan egitea, elkarrengana hurbiltzeko modua euskara lanean txertatzea da, euskara lanean erabiltzea jendea motibatzea eta gogobetetzea da, euskara planak indartsu daude batez ere kooperatibak dauden lekuetan, kooperatibetan euskararen gaia lantzen da.


Komunitatea eta harmonizazioarekin lotutako arrazoiak dira jarraian zerrendatuko direnak: enpresak kokatuta dagoen lekuari begiratu behar dio eta bertara egokitu; enpresa ez dago gizartetik kanpo, horren ispilua da, dena batera joan behar da; kanpoan eta enpresan euskararen aldeko jarrera dago.

Erantzukizunari buruzko argumentuak dira norberaren ardura dela euskararen normalizazioaren alde lan egitea, lanean ere euskararekiko ardura eta konpromisoa azaldu behar dela, gertuko ingurunea kontuan hartu behar dela eta ekarpenak egin behar direla, enpresa gizartearen zatia dela eta hizkuntzaren normalizazio prozesutik kanpo ezin dela gelditu, kooperatiba izateak euskararen normalizazioan lana egitea dakarrela berarekin.




Bukatzeko esan beharra dago J.Inazio Markok jasotako argumentuetatik Matz-Errekako eztabaida taldeek ekoiztutako diskurtsoetan ez direla ageri lan-harremanak, kalitatea eta balio erantsia, irudia eta legearekin lotutako argumentuak.

8. EKINTZA PLANA

Eztabaida taldeetan jasotako hiru diskurtso mota aztertu ondoren, euskararen erabilera areagotzeko eta euskararen normalizazioa lortzeko, **diskurtso mota batetik bestera jauzi egitea lortu behar da**, hau da, **indiferentzia diskurtsotik euskaltzale diskurtsora eta euskaltzale diskurtsotik eragile diskurtsora** jauzi egitea. Azken helburua, eremu negatiboan – indiferentzia eta kontrako diskurtsotan – inor ez egotea izango litzateke. Horretarako, eragile diskurtsodunek euskaltzale diskurtsodunengan eragin behar dute eta azken hauek berriz, indiferentzia diskurtsodunengan:



Indiferentzia diskurtsoan kokatzen direnentzat ekintza plana planteatu baino lehen, **aurreko lanak** egitea komenigarria da, hau da, euskararen erabileran eragiteko **kontzientzia linguistikoa** sortu behar da eta horretan, paper garrantzitsua jokatzeko euskaltzale diskurtsoan kokatzen direnek. Kontzientziatze lanen ondoren, indiferentzia diskurtsodunentzat ere, ekintza plana zehatza diseinatuko da euskararen normalizazioan ekarpenak egin ditzaten.



**Kontzientzia
linguistikoa**



Sanchez Carrionen (1991) esanetan ikaskuntza kulturalaren prozesuaren abiapuntua hizkuntza horren aldeko motibazioa da, **motibazioaren ontzia maila bateraino beteta** dagoenean hizkuntzaren ezagutza etorriko da; ondoren, ezagutzak nahikotasun maila gainditzen badu eta presio motibatzailearik badago, hizkuntza hori erabili egingo da.

Motibazioan nahikotasun maila lortzeko **kontzientzia linguistikoa** izan behar da. Horren eraginez, hiztunak euskararen ezagutzan sakontzen jarraituko du eta erabilera ere, ordura arte erabiltzen ez zituen beste esparruetara zabalduko du. Hau da, pertsona batek euskara etxean erabiltzeko ohitura besterik ez badu, ekintza planak sortarazitako euskararekiko kontzientziaren eraginez, lan munduan ere ekingo dio euskara erabiltzeari.

Hiztunak funtzio batzuk bere ama hizkuntzan ez baditu betetzen, funtzio horiek betetzeko kanpoko hizkuntza erabiltzeko joera eta beharra izango du eta bere ama hizkuntza alboratu egingo du. Alderantziz, hiztunak **funtzio kultural edo erabilera formalenak bere hizkuntzan** betetzen dituenean, bere buruari eta bere hizkuntzari ospe linguistikoa ematen dionean, bere hizkuntzan gustura dago eta, bere hizkuntzak duen baloreaz jabetzen da. Gure kasuan, enpresan jendeak euskara egoera formaletan erabiliz gero, erabiltzaileari eta euskarari ospe linguistikoa emanaz gero, euskararekin gustura egongo litzateke eta arrazoiak izango lituzke euskarak duen balorea bere buruari azaltzeko. Horrek, motibazioa handitzen lagunduko luke.

Hizkuntza ahularen beharrak hizkuntza hori ikasteko motibazioa eragiten du. Gure kasuan, euskararen beharra sortarazitako lukeen plana bultzatuko da, euskara erabiltzeko aukera izatearen beharra; gero horrek ikasteko behar den motibazioa eragingo luke.

Aurreko guztia lortzera bideratutako **ekintza plana** da hemen proposatzen dudana. Ekintza plan horren bidez, Matz-Errekako langileek euskara ikasteko edo hobetzeko motibazioaren ontzia beteko lukete nahikotasun maila lortu arte, eta maila horri eutsiko liokete, ikasitakoa erabili ahal izateko.

Indiferentzia diskurtsoa, euskaltzale diskurtsoa eta eragile diskurtsoa dutenengan eragiteko ekintza plana diseinatu dut eta bertako ekintzak hiru zutabe nagusitan banatuta daude: erabilera, ezagutza eta motibazioa.

Epeei dagokienez, garrantzitsua da markatzea helburuak epe laburrera edo epe luzera lor daitezkeen, horrek motibazioan eragina baitu. Helburuak lortu ahala motibazioaren ontzia betetzen joango da eta horrek berriz, ezagutzan eta erabileran eragingo du. Epe laburreko

helburuak lortzeko urte bete edo gutxiago behar izango da eta epe luzeko helburuak lortzeko berriz, urte betetik gora.

Erabileran eragiteko ekintzak eta horiek lortzeko **epeak** hurrengo hauek dira:

- Konpromiso bilera ofizialak egin Epe laburrera
- Autoebaluazio fitxetan hartutako konpromisoak jaso Epe laburrera
- Autoebaluazio fitxetan hartutako konpromisoen jarraipena jaso Epe laburrera
- Autoebaluazio fitxetan hartutako konpromisoen ebaluazioa egin Epe laburrera
- Besteen diskurtsoak ezagutu eta kontrastatu Epe luzera
- Euskara Plana enpresako Gestio Planean txertatu Epe laburrera
- Euskara erabiltzeko aukerak eta trabak detektatu Epe luzera
- Ingurukoengan eragin Epe luzera

Diseinatutako **ekintza planean ezagutza arloa lantzeko**, erdal hiztunak, erdizka dakitenak, alfabetatugabeak eta alfabetatuak kontuan hartu dira eta ondorengo ekintzak proposatu dira:

- Negozioka ezagutza maila definitu Epe laburrera
- Ikasleei jarraipen estua egin Epe luzera
- Ikastaro zehatzak eta laburrak antolatu Epe laburrera
- Liburuxka antolatu gaizki esandakoekin eta erabiltzen den terminologiarekin Epe laburrera
- Euskarazko material erraza eskura jarri Epe luzera
- Euskarazko baliabideak eskura jarri Epe luzera
- Matrikulazio kanpaina erakargarriak antolatu Epe laburrera
- Ikasteko dauden aukeren berri eman Epe laburrera

Eta **motibazioa lantzeko** aurreikusten diren ekintzak hurrengo hauek dira:

- Ikasleei zorion gutuna bidali Epe laburrera
- Gabonak zoriontzeko postala idatzi Epe laburrera
- Euskara bileretako asistentzia hobetzeko zirkularrak bidali Epe laburrera
- Berripapera argitaratu Epe laburrera

- | | |
|--|---------------|
| - Ibilbide linguistikoak berri eman (autobiografiak) | Epe luzera |
| - Jarduera ekolinguistikoak sustatu | Epe luzera |
| - Lehiaketak eta kanpainak antolatu | Epe laburrera |
| - Egutegia argazki eta esaerekin atara | Epe laburrera |
| - Komunikazioa bideratu planean parte hartzen ez dutenekin | Epe luzera |
| - Gogobetetze inkestan Euskara Planari buruzko galderak egin | Epe luzera |

Lehenengo multzoan, **erabileran, autoebaluazio fitxak** erabiltzea proposatzen da, horren bidez pertsona batek egiten duenaren kontrola izango duelako eta horrek, J.I.Irastorzak (2003) bere “Euskararen aldeko jarrera enpresetako euskara planetan” adierazten duen bezala portaeran eragina duelako. Bertan ikusi daiteke uste edo pentsatzen den hori, gure konpromiso hori egingo dela baieztatzeko, inplementatu egin behar dela – abian jarri, alegia – eta jarrera batek gero izango duen jokabidearen ingurukoa izango bada behintzat, kanpoko kontrol edo jarraipen baten eragina izan behar duela. Egindako azterketetan baieztatu zen norberak hartzen dituen konpromisoen jarraipena egiteak, jarraipenik ez egiteak baino betetze maila altuago ekarri zuela eta zenbait ohitura aldatzen hasteko – hain errotuta dauden gaztelaniazko harremanak euskaraz izan daitezkeen bideratzeko – baliagarria zela jarraipen hori.

J.I. Irastorzak (2003) bere lanean aurkitutako ondorioei jarraituz, gure planeko ekintza batzuk kontrol edo jarraipen hori izango dute eta hori, portaeran, euskararen erabileran igarriko da. **Konpromiso bilera ofizialetan** hartuko diren konpromisoak adierazi, arduradunak izendatu, epeak helburuen betetze maila ezarri eta helburu horiek lortzeko estrategiak adosten dira. Hartutako konpromisoei jarraipena eta ebaluazioa egiteko autoebaluazio fitxaren bidez egitea planteatzen da, portaera intenzioa aktibatu egiten delako. Portaera intenzioa aktibatze horren kontrola kontziente bilakatzen da eta garrantzitsuago dena, portaera intenzioa abian jartzen da. Autoebaluazio fitxak betetzeko konpromisoak konpromiso bilera ofizialetan hartuko dira eta baita, departamentu bileretan ere.

Ekintza planean erabileran eragiteko, euskararen inguruan **besteek dituzten diskurtsoak ezagutu eta kontrastatu** behar dira euskararen normalizazioan indarrak metatu nahi izanez gero. Hemen indiferentzia diskurtsodunengan eragitea interesatzen zaigu batez ere. Argi dago, indiferentzia diskurtsotik euskaltzale diskurtsora jauzi egiteko lehenengo eta behin, diskurtso biak ezagutu behar direla eta ezagutu eta kontrastatu ondoren, batak bestearengan eragina izango duela. Litekeena da, diskurtso biak kontrastatzerakoan,

indiferentzia diskurtsoa duten batzuegan inkongruentzia gertatzea, disonantzia, eta horrek, subjektuarengan barne gatazka sorraraztea, eta horrela gertatuz gero, gatazkako bi aldean arteko oreka bilatzera jotzea. Hau da, euskararen egoeraren larritasunaz ohartu egin behar da gero, jarrerak aldatzeko eta jarreraren aldaketa horretan aurreko puntuetan aipatutako kontrola lagungarri gertatuko zaigu. Era berean, litekeena da euskaltzale diskurtsodunengan eragile diskurtsoak ezagutu eta kontrastatzerakoan, inkongruentzia sortaraztea eta oreka berreskuratzeko aldaketak ematea, horrela elkar elikatuta euskararen erabileran eragina izatea.

Euskaltzale eta eragile diskurtsoan kokatzen direnentzat **Euskara plana enpresako Gestio planean txertatzea** garrantzi handia duela agerian geratu da diskurtsoen azterketa egiterakoan. Beraz, bide horretatik jarraitzea ezinbestekoa da.

Euskara erabiltzeko aukerak eta trabak zeintzuk diren **detektatu** egin behar dira lehenengo eta behin, horiek aztertu eta horiek aldatzeko estrategiak diseinatzeko.

Azkenik, erabilera arloko ekintza planean **ingurukoengan eragiteak** berebiziko garrantzia duela esan beharra dago. Indiferentzia diskurtsotik euskaltzale diskurtsora eta azken horretatik eragile diskurtsora jauzi egiteko, lan ohituretan eragin beharra dago, errazenetik zailenera, plan zehatza diseinatu, konpromisoak hartu eta horien jarraipena egin. Horretaz gain, indiferentzia diskurtsodunei euskaltzale eta eragile diskurtsodunen argumentuak ezagutzea komeni zaie, horrek aurreragoko portaeretan eragina izan ahal duelako. Kontuan hartu behar da, portaera azaltzeko kausak aurkitzeko joera dugula eta batez ere, lortutako emaitzak gure aurre espektatibekin bat ez datozenean eta emaitzen kausa-egozpenek akzioarekiko joera berrietan eragingo dutela.

Ezagutza arloan definitu ditugun ekintzak euskara ikasi edo hobetzea dute helburu. Matz-Errekako langileen diskurtsoen azterketan ikusi izan da batetik, euskara dakitenen artean euskara erabiltzea eta hobetzea baloratu egiten dela eta bestetik, ez dakitenean ikasten eta erabiltzen egiten duten esfortzua euskararen berreskurapenerako ezinbestekoa dela eta baloratu egiten dela. Bestalde, kontuan hartu behar da gaur egunean Matz-Errekako euskal hiztunen kopurua %59 dela eta euskararen erabilerarako kopuru horretan gora egitea beharrezkoa dela eta horretarako bide bat euskara ikastea dela. Gainera, indiferentzia diskurtsoan eta euskaltzale diskurtsoan ere, euskaradunen eta erdaradunen arteko integrazioa – berdintasuna – bilatzeko sortzen den mekanismoari aurre egiteko bidea denek euskara jakitea da. Aurreko lerroetan aipatu den moduan, errespetua, edukazioa eta komunikazioaren izenean euskaraduna eta euskara irentsi egiten dira, nahikoa da taldean bat bakarra erdal hiztuna izatea gaztelaniaz egiteko, hizkuntza bakarrik dakienarekiko errespetua adieraztea eta ez alderantziz, ele bidunarekiko.

Nekane Arratibelek (1999) dioenez euskara ikasten ari direnen artean orientazio integratzailea aurkitu da eta horren barruan motibazio komunikatzailea dago. Peralesek egindako lanean (1989; HIZNET graduondotik 2003-2004) motibazioaren inguruan emaitza hauek jaso zituen: lagunartea zenbat eta euskaldunago izan, hainbat eta gehiago sortzen ditu noranzko integratiboak, ikaslea zenbat eta motibazio integratibo gehiagokoa izan hainbat eta gehiago saiatzen da euskara ikasten eta jarrera positiboak motibazio integratiboarekin loturik azaltzeko joera dago.

Euskararen formazio plana egiteko lehenengo eta behin, **Negozioka ezagutza maila definitu** behar da, hots, lanpostu bakoitzari dagokion euskara maila ezarri eta horra heltzeko behar den formazio plana diseinatu. Euskararen formazio plan horretan, **ikasleei jarraipen estua egitea** ezinbestekoa da, helburuak lortzen dituen ikusteko, behar dituen baliabideak eskaintzeko eta ikasi ahala erabiltzeko aukerak detektatu eta ikasitako praktikan jartzeko. Gainontzeko ikastaroetan gertatzen den bezala, ikasitakoa modu naturalean enpresan praktikan jarri behar da, ikasleak horren beharra sentitu eta aukerak eskura jarri.

Langile erdaradunak erosotasunetik ateratzeko batetik euskara erabili beharra dagoela ikustarazi behar zaie eta bestetik, **euskara ikasteko baliabideak eskaini** behar zaizkie. Euskara arloan, langile guztien beharrak berberak ez direnez, antolatzen diren **ikastaroak** ere, beharretara egokituak izan behar dira, **zehatzak eta laburrak** behar dira izan ikastaro horiek, batez ere, ikastaroen helburua zein den argi egon behar da: ohar laburrak idazteko, egunero egiten dena kontatzeko, aktak idazteko, lan instrukzioak ulertzeko etab., ahal den eta eraginkorrena izatea bilatu behar da, errealitatearekin lotura izatea, horrela, ikasitakoa erabili eta horrek berriz, motibazioan eragiten duelako. Horiekin batera, komenigarria izango litzateke **liburuxka bat argitaratzea** gaizki esandakoekin eta departamentu bakoitzean erabiltzen den terminologiarekin, euskara zuzen erabiltzeko eta egunero-egunero termino berriak ikasten joateko.

Ikaste prozesuan laguntzeko, **euskarazko material erraza eta euskarazko baliabideak eskura jartzea** garrantzitsua da. Baliabideen artean eguneroko lanetan lagungarri izango direnak aipatu litezke: Xuxen zuzentzailea, hiztegiak, akta eta bilera ereduak, txostengintzarako aholkuak, itzulpenetan jarraitu beharreko pausoak, etab. Azkenik, euskara ikasteko **matrikulazio kanpaina erakargarriak** antolatzea komeni da eta ikasteko dauden aukeren berri ematea ere. Gaur egun euskara ikasteko eskaintza zabala da: on line ikastaroak, udako ikastaro trinkoak.. etab.

Motibazio arloan planteatutako ekintzak motibazioa handitzen lagunduko dute.

Matz-Errekako langileen diskurtsoetan , batez ere euskaltzale diskurtsoan, behin eta berriz aipatzen zen, euskararen erabileraren garrantzia azpimarratzen duten mezuak zabaltzea beharrezkoa zela, gogorarazi beharra zegoela, bestela, eguneroko lanetan murgiltzen zirela eta euskara ez zela kontuan hartzen.

Enpresan euskara ikasten ari direnei **zorion gutuna bidaltzea**, eta euskararen berreskurapenean jokatzeko ari diren papera errekonozitzea, euskara ikasteko eta erabiltzeko behar duten motibazioaren nahikotasun mailari eusteko bide egokia da. Langile guztiei **Gabonak zorientzeko postala** idazteak ere, euskara lanean erabiltzeak duen garrantzia azpimarratuz, gogorarazteko balio du.

Euskararen erabileraren datuak, terminologiaren inguruko azalpenak edo zuzentasunarekin lotutako **lehiaketak eta kanpainak** antolatzeak eragina du euskararekiko motibazioan eta baita ezagutzan ere, informazio horren bidez ikasten delako eta ikasitakoa praktikan jarri liteke. Beste horrenbeste esan daiteke **egutegia argazki eta esaerekin** ateratzearen gainean: urte osoan lanerako erabiliko den egutegia begien aurrean izango dute, euskararen erabilera bultzatzera bideratutako esaldi eta mezuekin.

Euskara planean parte hartzen dutenentzat – departamentu bilerak, Euskara Batzordea, lan taldeak, euskara eskolak – **asistentzia hobetzeko zirkularrak** bidaltzea proposatzen da, asistentzia hobetuz, euskararekiko konpromisoetan gehiago sakontzeko aukera dagoelako eta horren ondorioz erabilera handitzeko. Euskara **planean parte hartzen ez dutenentzat** berriz, **komunikazio lanak** egitea proposatzen da, informazioa izatea jarreraren aldaketarako oinarritzeko elementua delako eta produzitzen diren diskurtsoetan aldaketa sortarazi ahal duelako. **Jarduera ekolinguistikoak sustatzeak** ere, diskurtsoetan aldaketak sortarazi ahal ditu eta horrela indiferentzia diskurtsoetik, euskaltzale diskurtsora eta euskaltzale diskurtsoetik eragile diskurtsora jauzi egiteko zubiak eraikitzen lagundu.

Enpresako **berripapera** argitaratzeak eta **ibilbide linguistiko**en berri emateak (autobiografia) ere, jarreretan eragiten du eta ohitura aldaketak eta jarrera aldaketak bideratzen ditu. Azkenik, motibazioaren argazki orokorra izaten eta jarreraren diagnostikoa eta bilakaera izaten lagunduko duena egiten jarraitzea (2004ko ekainean egin da lehenengo aldiz) proposatzen da ekintza plan honetan: 2 urtetik behin egiten den gogobetetze inkestan Euskara planari buruzko galderak sartzea.

DISKURTSOEN ARABERAKO EKINTZA PLANA

INDIFERENTZIA DISKURTSOA

1 / 2 / 3 / 4 / 5 / 9 / 11 / 12 / 13 / 15 /
16 / 17 / 20 / 22 / 23 / 25 / 26 / 27

- 1.- Konpromiso bilera ofizialak egin
- 2.- Autoebaluazio fitxak: konpromisoak hartu
- 3.- Autoebaluazio fitxak: jarraipena egin
- 4.- Autoebaluazio fitxak: ebaluazioa egin
- 5.- Besteen diskurtsoak ezagutu, kontrastatu
- 6.- EP GP an txertatu
- 7.- Euskara erabiltzeko aukerak, trabak detektatu
- 8.- Ingurukoengan eragin

EUSKALTZALE DISKURTSOA

1 / 2 / 3 / 4 / 6 / 8 / 9 / 10 / 11 / 12 / 14 / 15
/ 16 / 17 / 18 / 19 / 20 / 21 / 22 / 23 / 24 /
26

- 9.- Negozioka ezagutza maila definitu
- 10.- Ikasleei jarraipen estua egin
- 11.- Ikastaro zehatzak eta laburrak antolatu
- 12.- Liburuxka argitaratu: gaizki esandakoak, terminologia.
- 13.- Euskarazko material erraza eskura jarri
- 14.- Euskarazko baliabideak eskura jarri
- 15.- Matrikulazio kanpaina erakargarriak antolatu
- 16.- Ikasteko dauden aukeren berri eman

ERAGILE DISKURTSOA

1 / 2 / 3 / 4 / 7 / 8 / 11 / 12 / 14 / 17 / 18
/ 20 / 22 / 23 / 26

- 17.- Ikasleei zorion gutuna bidali
- 18.- Gabonak zoriontzeko postala idatzi
- 19.- Asistentzia hobetzeko zirkularrak bidali
- 20.- Berripapera argitaratu
- 21.- Ibilbide linguistikoak berri eman (autobiografiak)
- 22.- Jarduera ekolinguistikoak sustatu
- 23.- Lehiaketak eta kanpainak antolatu
- 24.- Egutegia argazki eta esaerekin atera
- 25.- Komunikazioa planean parte hartzen ez dutenekin
- 26.- Gogobetetze inkestan EPri buruzko galderak

Goiko irudian diskurtsoen araberrako ekintza plana azaltzen da. Bertan, 27 ekintza proposatzen dira eta ekintza bakoitza zein diskurtsotarako proposatzen den azaltzen da zenbakiak lauki bakoitzean jarrita. Ondoren ekintza plan hori zehaztuta ikusi daiteke; zutabeetan ekintza zerrenda, epea, arduraduna, euskarria, nori zuzendua eta ekintza zuzentzaileak azaltzen dira.

Ekintza plan zehaztuaren berri eman baino lehen, jarraian Matz-Errekan Euskara Planean dauden baliabideak zerrendatuko dira:

- Euskara Batzordea EB: Euskara plana gestionatzen du.
- Koordinatzailea: Euskara planaren proiektuaren liderra da eta besteak beste, Zuzendaritza Batzordean proiektuaren deskarguak egiteko ardura du.
- Departamentu bilerak DB: Enpresako departamentu guztietako langileak parte hartzen dute, guztira langileen %66. Parte hartze hori boluntarioa da.
- Konpromiso bilerak KB: Negozio eta departamentuetako arduradun guztiek parte hartzen dute. Gainontzeko proiektuetan bezala, bileretan jarritako helburuak derrigorrez bete behar dira.
- Zuzendaritzako ordezkaria ZU OR : Euskara Batzordean Euskara Plana gestionatzeko enpresak izendatutako Zuzendaritzako ordezkaria.
- Pertsonal Burua: Per.Burua: Euskara Planean ezagutza enpresako formazio planetatik bideratzeko ardura du.
- Lan taldea: Euskara Batzordearen barruan sortutako lan taldeak helburuak aurrera ateratzeko.
- Euskara Teknikaria: Matz-Errekak kanpoko Aholkularitza kontratatu du – Emun Koop E – planaren lan teknikoak egiteko.

DISKURTSOEN ARABERA ZEHAZTUTAKO EKINTZA PLANA

Indiferentzia diskurtsoa
Euskaltzale diskurtsoa
Eragile diskurtsoa

EKINTZA	HILABETEA											Arduraduna	Betetze maila	Ekintza zuzentzailea	NORI ZUZENDUA			
	urta.	otsa.	mar.	api.	maia.	ekai.	uzta.	ira.	urri.	aza.	abe.				Indif.	Eusk.	Era.	
1 Konpromiso bilera ofizialak egin													EB					
1.1 Parte hartzaileak identifikatu	X												EB					
1.2 Parte hartzaileekin kontaktatu eta deiak banatu		X											Teknikaria					
1.3 Bilerak egin			X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	EB					
2 Autoebaluazio fitxak bete (2, 3, 4)													EB					
2.1 Konpromisoak hartu	X	X											DB, KB					
2.2 Konpromisoen jarraipena egin					X	X							DB, KB					
2.3 Betetako konpromisoak: ebaluazioa									X	X			DB, KB					
2.4 Eraitzen berri eman											X		EB					
5 Besteen diskurtsoak ezagutu, kontrastatu	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	EB					
6 Euskara plana enpresako Gestio planean txertatu													ZU OR					
1.1 Helburuak eta ekintza plana prestatu	X	X											EB					
1.2 Zuzendaritzan jarraipena egin					X						X		Koordinatzailea					
7 Euskara erabiltzeko aukerak, trabak detektatu													DB, KB					
7.1 Aukera eta trabak zerrendatu		X	X										DB, KB					
7.2 Elkarri horren berri eman				X	X								DB, KB					
8 Ingurukoengan eragin	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	EB					

19.1	Bileretara joaten direnen zerrenda osatu					X						X	Lan taldea					
19.2	Nominarekin batera asistentzia hobetzeko zirkularra banatu												Lan taldea					
20	Berripapera argitaratu												EB					
20.1	Proposamena landu Euskara Batzordean	X											EB					
20.2	Proposamena Zuzendaritza Batzordean aurkeztu		X										Koordinatzailea					
20.3	Lan taldea osatu			X									EB					
20.4	Berripapera prestatu					X			X			X	Lan taldea					
21	Ibilbide linguistikoaren berri eman (autobiografiak)												EB					
21.1	Autobiografiaren kopurua zehaztu			X									EB					
21.2	Negoziokara pertsonak aukeratu					X							Lan taldea					
21.3	Autobiografiak jaso					X	X	X					Lan taldea					
21.4	Jasotako informazioa zabaldu									X			EB					
22	Jarduera ekolinguistikoak sustatu	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	EB					
23	Lehiaketak eta kanpainak antolatu		X										EB					
23.1	Maiztasuna zehaztu			X									EB					
23.2	Lan taldeak osatu					X		X		X		X	DB					
23.3	Lehiaketak eta kanpainak martxan jarri												DB					
24	Egutegia argazki eta esarekin atera												EB					
24.1	Egutegiaren formatua diseinatu									X			Lan taldea					
24.2	Negoziotara langileei argazkiak atera										X		Lan taldea					
24.3	Esaerak bildu											X	Lan taldea					
24.4	Egutegiak banatu											X	Lan taldea					
25	Komunikazioa bideratu planean parte hartzen ez dutenekin												EB					
25.1	Planean parte hartzen ez dutenen zerrenda osatu			X									EB					
25.2	Bilerak antolatu					X					X		EB					
25.3	Informazioa eman					X					X		EB					
26	Gogobetetze inkestan Euskara Planari buruzko galderak egin												Per. Burua					
26.1	Galdetegia prestatu			X									EB					
26.2	Inkesta bete							X					Per. Burua					
26.3	Emaitzak interpretatu									X			EB					

26.4	Emitzen berri eman Zuzendaritza Batzordean										X	Per. Burua					
26.5	Emaitzak hobetzeko neurriak hartu										X	Per. Burua					

9. BIBLIOGRAFIA

- **Arratibel, N. (1999)** *“Helduen euskalduntzean eragiten duten prozesu psikosozialak: motibazioaren erroak”*. Tesi doktora, Argitalpen Zerbitzua UPV/EHU
- **EDB** Euskararen datu basea www.sortu.org/edb
- **EMUN (2002)** *“Matz-Errekako Euskara Planaren jarraipena”* txostena
- **García, M.; Ibañez, J.y Alvira, F.compilación (1996)** *“El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación”*. Alianza Universidad Textos.
- **HIZNET graduondokoa.(2003-2004)** UEU, EHU, Eusko Ikaskuntza eta Eusko Jaurlaritza.
- **Irastorza, J.L. (2003)** *“Euskararen aldeko jarrera enpresetako euskara planetan* Psikopedagogia 2003 KAP
- **Jausoro, N.; Martínez de Luna, I.eta Dávila, A. (1994/95)** *“Gazte donostiarren hizkuntzarekiko harremanak”*. BAT, Soziolinguistika aldizkaria, 27.zk.
- **Larrañaga, N. (1995)** *“Euskal gaztetxoek euskararekiko jarrerak eta beren eragina euskara ikasi eta erabiltzean”*. Tesi doktora, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea.
- **Marko J.I. (2004)** *“Euskara bultzatzeko erantzukizuna eta enpresak”* www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1084208726
- **Martinez de Luna, I. (1996)** *“Hizkuntzekiko motibazioen ekarpenak inguruneak ezarritako baldintzen aurrean”* BAT soziolinguistika aldizkaria 18.zk.
- **Sanchez Carrión, J.M. (1991)** *“Un futuro para nuestro pasado, claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las lenguas”*. Donostia: egilearen argitalpena.

10. ERANSKINA

Hurrengo hau da Matz-Errekako talde eztabaidetan erabilitako galdetegia:

10.1.1. AURKEZPENA

Eztabaida taldeari eman beharreko informazioa:

- Euskara planaren inguruan enpresako langileen iritzia ezagutu nahi da
- Orain arte egindakoa baloratu nahi da
- Aurrera begira proposamenak eta ekarpenak jaso nahi dira
- Nola burutuko den saioa azalduko da, taldearen dinamika
- Adostasuna, kontzientzia bilatzen saiatzeko eskatuko zaie

10.1.2. SARRERA

Norberari buruzko datuak:

- Non/nola ikasi duzu euskara? (etxean, eskolan, euskaltegian...)
- Non erabiltzen duzu euskara: etxean, lagunartean, lanean...? Non gehiago/gutxiago?
- Gehiago/gutxiago jakin, erabili nahiko zenuke?

Euskararen egoera: hitz gutxitan definitu:

- Familiar: transmisioa
- Lagunen artean
- Hezkuntza: eskolak, euskaltegiak, unibertsitatea...
- Kultura: antzerkia, zinema...
- Komunikabideak: egunkaria, irratia, telebista...
- Instituzioak: udala, Foru Aldundia, Eusko Jaurjaritza...
- Zerbitzuak: dendak, banketxeak...
- Lan mundua: enpresak
- Kirola

Aurretik aipatutako puntuetan, azken urteetan aurrerapauso/atzerapausorik eman da? Badago alderik? Zertan?

10.1.3. EGOERA ENPRESAN

Enpresan zenbatek dakite euskaraz?.

Enpresako euskararen erabilera: zuk erabiltzen duzu? Besteek erabiltzen dute?

Zerk bultzatzen zaitu euskara erabiltzera? Zerk ez erabiltzera?

Enpresan euskararekiko interesa:

- Langileak: planean parte hartzen dutenak eta parte hartzen ez dutenak
- Zuzendaritza
- Bezeroak
- Euskara Batzordea
- Euskara ikasten ari direnak

Euskara erabiltzeak lana bikoiztea, satisfazioa... dakar.

Euskara garrantzitsua da zuretzat? Besteentzat? Zergatik?

Euskal/erdal hiztunekin harremanak

Zer dakizue euskara planari buruz?

Euskara lanean. Zertarako?

- Enpresarentzat balio erantsia da.
- Euskal hiztunek euskara erabiltzeko eskubidea dute.
- Dirua alperrik gastatzea da.
- Belaunaldi berriei bidea zabaldu, hezkuntzan egindako esfortzua alferrikakoa izan ez dadin.
- Antzuola oso herri euskalduna da.
- Gizartearen nahia da.
- Euskara gorde behar den altxorra da.

Euskara Plana hasi zenetik, badago alderik?

10.1.4. GERORA BEGIRA, ZER?

Euskara bultzatzeko, zer egin behar da? Lehentasunik bai?:

- euskaldunen artean beti euskara erabili ahoz eta idatziz
- ulertzen ez dutenek ikasteko aukera izan
- berba egiten dutenek irakurtzen eta idazten ikasi

- kontratazio berrietan euskara eskatu
- enpresa barruko promozioetan euskara eskatu
- zuzendaritzan euskara erabili
- dokumentuetan euskara erabili
- errotulazioan euskara erabili

Zein izango litzateke helburua enpresan?